

**MAILOPE TXIKI:** Inauteriak **ZABAL:** Iñigo Ulazia **ELKARRIZKETA:** Patxi Bisquert **KIROLA:** Krosa  
**HAIZEAK ERAMANA:** Jon Ander Unanua **BATZARRE:** Urtarrileko laburrak **LAUBURUA:** Pinuak

Ikusi  
hemen  
Mailope



[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

## “Areto txikia kontzertu handiak”

Juan Cruz Martirena (Uitzi)  
Bertso berriak  
Mailoperi jarriak



Berri Txarrak taldeak Mailope Aldizkariaren aldeko kontzertu sorpresa eskaini zuen joan den Errege bezperan. Beraiei esker aldizkariak beste 800 euro poltsikoratu ditu. Eskerrik asko!

## *Inauteriak!!*

*Eskualdean dagoeneko hasi dira inauteriak. Oraingoan aurtengo inauterietako zuen mozorroak bildu nahi ditugu. Inauteri hauetan atera ezazu zeure buruaren argazki bat zure aurtengo mozorroarekin eta bidaliguzu mailope@labrit.net helbidera.*



- 2 -

*Joan den alean katutxoaren eskulana egiteko proposatu genizuen. Haiek dira jaso ditugun katutxoak. Zozketa egin eta Uxue Lourido izan da irabazle, Korrika oparia jasoko du. Zorionak!*





**04>** Iritzia

**08>** Luze: Koldo Nuñez-Betelu

**09>** Zabal: Iñigo Ulazia



## **10 >** Lekunberriko Abesbatza

40 urte baino gehiago egin ditu Juan Miguel Etxarrik Lekunberriko Abesbatza zuzentzen. Aldaketarako garaia iritsi da eta Javier Martijak hartuko du lekukoa.

**14>** Erreportajetxoa: Berri Txarrak

**16>** Elkarrizketa: Patxi Bisquert

**20>** Kuxkuxean: Otsaileko zorion agurrak



## **21 >** Inauteriak

Uitzikoak izan dira eskualdeko lehen inauteriak. Eguberriak amaitu eta hurrengo asteburuan ospatu zituzten uitziarrek eta dagoeneko hurrengo urteko maiordomoen zozketa ere egin dute.

**22>** Batzarre

**24>** Kultur Elkarrizketa: Ione Gorostazu



## **26 >** Araitz-Beteluko X. Krosa

Hamar urte bete ditu aurten Araitz-Beteluko Herriarteko Krosak. 180 korrikalarik parte hartu dute proba nagusian. Eskualdekoen artean Xabier Satrustegi helmugaratu zen lehendabizi.

**28>** 20 urte bidean: Basaburuko ateak

**29>** Haizeak eramana: Ion Ander Unanua

**30>** Ekinaren ekinez: Urko Zeraleku Hogar

**Mailope doan banatzen da honako herrietan:** Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

**Argitaratzen du:** Mailope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.

[issuu.com/mailopealdizkaria](http://issuu.com/mailopealdizkaria)

**ERREDAKZIOA:** Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo eta Andoni Tolosa.

**ARGAZKIAK:** Labrit, J.A. Garaikoetxea, Agurtzane Altuna, Ricardo Bosch, Joseba Artzeluts, Patxi Bisquert, Laida Zabaleta, Josu Oreja eta Ion Ander Unanua.

**PUBLIZITATEA:** Labrit Multimedia - 948 210 103  
mailope@labrit.net.

**MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

**TIRADA:** 1.600 ale.



Eusko Jaurlaritzak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

## (H)Ari Gara Larraun eta Lekunberriko udalerrietan

Larraungo eta Lekunberriko udalerrietan (h)ari gara prozesua jarri genuen martxan azaroaren 17ko aurkezpenarekin. Azken asteotan, berriz, bi udalerrietarako eta bailarako dugun proiektu politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala osatzen aritu gara herritarrekin, prozesu parte-hartzaile baten bitartez, eta hor definitu ditugu aldaketaren oinarriak. EH Bildutik zenbait bilera antolatu ditugu Larraungo udalerriko herrietan (Uitzi, Gorriti, Azpirotz, Errazkin, Aldatz, Arruitz, Etxarri...), eta udal eta garapen ereduaren inguruan hitz egin dugu herritarrekin. Lekunberri ere antolatu ditugu bilera udal eta garapen eredu joratzeko. Arlo horiekin batera, Larraungo bailara osoari dagozkion hainbat gai landu ditugu, horiek ere bilera irekien bitartez: Euskara, Kultura, Hezkuntza, Gazteak, Berdintasuna, Helduak, Kirola... Gure helburua argia da: herritarrekin batera osatzea gure herri programa. Bilera horien ondotik, inkesta bat plazaratuko dugu herritarren ekarpen gehiago jasotzeko. Behin proposamenak jasotzeko prozedura bukatzean, ekarpen guztiak modu egokian ordenatu eta horiek partekatzeari ekingo diogu otsail erdialdean. Martxoan, berriz, jaso ditugun proposamen guztiak bozkatu eta lehentasunak finkatuko ditugu. Hori guztia ere herritarrekin batera egin nahi dugulako, zenbait tresna jarriko ditugu martxan: herri batzarra, Internet...

EH Bildutik argi dugu 2015ak aldaketaren urtea izan behar duela, eta herritarrak horren alde egitera animatu nahi ditugu. Lekunberri Berri bat eta Larraun Biziberritzea izango dira gure helburuak.



HE Bildu

## Korrika

*Kaixo lagun:*

Eskutitz honen bidez, Korrikak abian jarri duen kanpainaren berri eman nahi dizuegu.

AEK-k 1980an lehenengo Korrika antolatu zuenetik, 18 korrika eta 34 urte igaro badira ere, Korrikak, euskararen alde antolatzen den ekitaldi jendetsu eta garrantzitsuenetako hau aurrera eramateko eta euskararen herria zeharkatu ahal izateko laguntza behar du, inoiz baino gehiago. Tamaina honetako kanpaina batek herriaren eta herritar bakoitzaren laguntza ekonomikoa (bestelakoak ere, zer esanik ez!) behar du aurrera egiteko. Horregatik, duela bost Korrika, Korrika laguntzailea kanpaina jarri zen martxan.

Laguntzaile egiten diren guztiek, 12 euroren truke, laguntzaile direla adierazten duen pina eta deskontuetarako txartela jasoko dute. Euskal Herriko hainbat komertziotan beherapenak izatea ahalbidetuko die Korrika laguntzailea txartelak.

AEKren eta Korrikaren esker ona adierazteko modu xume bat baino ez da, baina bene-benetan garrantzitsua dena zera da: bi urtetik behin, 12 euroren truke, 50 zentimo hilean, Korrika laguntzailea izatea eta Korrika eta AEK laguntzea.

Zuen inguruan honen guztiaren berri ematea eskatu nahi dizuegu eta jendea laguntzaile izatera animatzea.

Korrika laguntzaile izan nahi baduzu, bete erantsita doakizun fitxa eta 12 eurekin batera eraman ezazu Larraungo AEK euskalgira.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

Adeitasunez.

Beatriz Buldain Etxarri, Larraungo Korrika Arduraduna

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi  
mailto:mailope@labrit.net-era

Hostal  
Betelu  
<http://www.hostalbetelu.com>  
Eguneko menua,  
karta, plater  
konbinatuak eta pizza  
goxoak  
Etorri eta  
on egin!  
Erreserbak:  
948513026  
676145637

**BETELU**  
**PNEUMATIKOAK**  
TAILER MUGIKORRA  
NEUMATIKO ALDAKETA  
ZULATZEEN KONPONKETA  
Vicente Iriarte  
**T. 646 474 166**  
[www.neumaticosbetelu.es](http://www.neumaticosbetelu.es)

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ  
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA  
IBILGAILU BERRIAK ETA ERABILIAK SAIGAI

**GRUAS Y TALLERES LARRAUN S.L.**

Lekunberriko industriagunea,  
21. nabea  
31870 Lekunberri  
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356  
Telefona: 948 507 229  
Faxa: 948 507 281  
gtlarraun@gmail.com

## Atxiloketak-ETA

Joan den ilbeltzaren 12an, Espainiako Gobernuak berriz ere jokatzen duen modu zikin, susmagarri eta desagokian, Euskal Herriko sektore oso handi baten aurka. Ematen du jadanik ez dakitela zer gehiago asmatu, beren alderdiko interesen alde egiteagatik. Iristen ari dira puntu absurdu, ulertezin eta antidemokratikoenetaraino.

Orain zer eta, berriro ere bururatu zaie atxilotzea euskal preso politiko batzuen abokatuak. Barne ministroa ziztu bizian atera zen hedabideen aurrera, atxilotu haiei leporatzeko ETArekin garro arrunt arriskutsu eta kaltegarriak zirela. Eta, hara non, epailearen aurrean deklaratu bezain azkar, atxilotuetako gehienak aske utzi dituzten, bermerik jarri gabe eta oso kargu txiki batzuk ezarrita. Nola liteke bada, etakide arriskutsu eta gaizkile batzuk epaileak segituan aske uztea? Zer, epaile horiek erotuta eta ergelduta al daude bada?

Guardia zibilek eman ziguten beste ikuskizun bat, zeharo harri-garria izan zen, dirua lapurtzearena. Edo bahitzearena, esan behar al genuke? Itzultzen ez duten bitartean behintzat, nik uste dut, esan behar dela, lapurreta hutsa izan zela, LAB eta Sareren izen ona zikindu eta lohitzeko. Zergatik ez ote dute egiten gauza bera elizetan, meza guztietan biltzen den diruarekin, konparaziora, horren ekintza susmagarria baldin bada? Demokrazia baten barruan ez dute inolako lekurik, Madrildo Gobernuaren halako ekintza maltzurrik.

Eta joan den aste hau, ikatz kolorez margotzen biribiltzeko, hortxe dugu Madrildo Gobernuak berberak asmatu eta praktikan jarri nahi duen legea edo dena delakoa, euskal preso politiko batzuek, Estatu honetatik kanpo bete dituzten zigorraldiak, berriz ere bete ditzaten Estatu honetan, zigor gehigarri moduan. Nik uste dut, honelako asmo zitalak ezin direla sartu buru logiko eta asmo onekoetan, baina norbaizuen buruetan bai, oso erraz sartzen dira.

Idatzi hau ez luzatzearen eta bukatze aldera, nik uste dut esan behar dela, jokabide hauek guztiak daudela, PPren Gobernuaren aginduetara eginak, beren komenentziaren arabera. Hautes-kundeei begira eta beren lotsaizunak, ustelkeriak, murrizketak, eraginkortasunik eza, lotsariak, boto galerak, eta abar, eta abar estaltzeko. Berriz ere antolatu dute estrategia hau, ezkerreko euskal abertzaleak desprestigiatzeko, botoak kentzeko, izorratzeko, mendekua hartzeko, kalte egiteko, beraiek denbora irabazteko, eta abar hamaika aldiz. Ustezko hitz miresgarriaren babesarekin, nonbait iruditzen omen zaie, askatasuna dutela edozein astakeria

antidemokratiko eta Giza Eskubideen kontrakoa egiteko, inolako lotsarik eta ordainik gabe.

Beren praktika hauxe da: <esan gezurra esan, beti zerbait gelditzen da-eta!>. Atxilotu politiko eta badaezpadakoekin ere, beste horrenbeste gertatzen ari da, momentuz ziegetara, eta gero, zigor guztia bete ondoren, errugabeak zirela frogatzen bada ere, berdin da, hor konpon, izorratu eta gainera isilik egon daitezela! Lehena-go ere antzeko nahiko kasu ikusiak gara: Egin egunkariarena, Egin Irratiarena, Ardi Beltza aldizkariarena, Euskaldunon Egunkariarena, Bateragune auzikoena, Parot doktrinakoena, eta abar.

PPk dagoeneko hamaika aldiz frogatu digu ez dela oso alderdi demokratikoa, eta alderantziz bai, ordea, hots, Giza Eskubideetan egundoko gabeziak dituela.

Xanti Begiristain Madotz, Auritz.

Larraungo Eguneko Batzordetik Manolita Larra-yozen familiari besarkada bat bidali nahi diogu. Bere alaitasuna, lanari ekiteko hazia.



2014ko Larraungo Egunean omendua

**GARAZ** Zure behar eta ordubegira moldatuko gara

ETORRI ETA INFORMAZIOA ZAITEZU!

Mate  
erdi eta goi zikloetarako prestaketa

Fisika <sup>inglesa</sup>  
lengua <sup>kimika</sup>

948 504 450  
648253521

marrasketa teknikoak  
euskera <sup>historia</sup>  
unibertsitate mailako ikasgaiak

### ALBI Taberna-kafetegia

Eguneko menua, jai egunetako menua,  
bokatak eta pintxoak  
Herriko plaza, 948 604 554,  
Lekunberri

## Bar Ainhoa

- Razioak
  - Pintxoak
  - Ogitartekoak
  - Plater konbinatuak
  - Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.
- Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera  
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)  
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com



# Bertso berriak

## Mailoperi jarriak

Juan Cruz Martirena (Uitzi)



*Goiz-goizetik hasiko gara  
estamo hutsa betetzen  
urdaiazpiko eta arrautza  
ardoarekin bultzatzen  
bibrazioak hasiko dira  
gorputz barruan jabetzen  
ondoren nola egongo naizen  
zaila ezta izango asmatzen  
izan ere ni naturalki  
saiatzen naiz mozorratzen*

*Hemendik ongi entzun daiteke  
kuadrila baten algara  
laster sartu egingo dira  
ila-ilaran plazara  
beraiengana gerturatzeko  
gorputzen ai! Ze zirrara  
ez bai nago kondiziotan  
joateko haiekin dantzara  
egokiena izan liteke  
gelditzea hemen, hara!*

Mikel Huarterentzat puntua eta lau oinak:

Puntua:

Elurra

Oinak:

Ardia, Mendia, Handia eta Pagadia.



Doinua: Mutil koxkor bat.

- 6 -



### LARRAUNGO EGUNA ANTOLATZEN

Dagoeneko 2015eko Larraungo Eguna antolatzeko lehen bilera egin dute. Animatu antolaketan parte hartzera!



### KORRIKA FESTA LEKUNBERRIN

Martxoaren 19tik 29ra Urepeletik Bilbora egingo den Korrika dela eta Korrika Kulturalaren baitan Korrika festa egingo da Lekunberrin. Otsailaren 22an, igandea, Lekunberriko udaletxeko Batzar aretoan, arratsaldeko 17:00etan, 19. edizioaren aurkezpena egiteaz gainera, arropa desfilea, lehiaketa eta sorpresaz beteta egongo da ekitaldia.



### KONTSEILUAREN BATZAR DEIALDIA

Kontseiluaren Nafarroako Mahaiak apirilaren 25ean Iruñeko Anaitasun ekitaldi bat egingen du.

Lekunberrin, otsailaren 12an, ostegunetan, 17:00etan, Larraungo Udaleko batzar gelan, batzarra izanen da. Kontseiluaren mahaiaren lanketaren eta Anaitasunako ekitaldirako nondik-norakoen berri emanen dute bertan. Lekunberriar eta larraundar guztiak gonbidatuta zaudete.

## Sinismenak muturrera eramanda



Mikel Alvarez

“Nire botere guztiarekin jazarriko ditut heretikoak eta gerra egingo diet”. Agian norbaitek hau irakurrita, Aitor, pentsa lezake Parisen erasoak gauzatu zituzten musulmanena dela esaldia. Sentitzen dut hori pentsatu dutenei beraien ustea okerra dela esatea, baina esaldi hori orain gutxi arte obispo kristau katolikoek erabiltzen zutena da, hain zuzen ere beraien karguaren zin egitean. Pariseko eta Belgikako gertakarien ondorioz, erlijioaren eta terrorismoaren afera

“Konturatu beharko gara noizbait ez garela bakarrik bizi”

bolo-bolo dabil azkenaldi honetan gure artean, Aitor, eta hainbat hika-mika sortu ditu. Gai honek mila erpin eta aferra izan arren (hala nola, gatazka geopolitikoak edota mendebaldeko herrialdeen interesak), erlijioaren eta kulturen ildoari helduko diot Aitor. Nire inguruko jende askori entzun diot gai honi buruz hitz egiten eta nahiko kezkatu nago, izan ere, kultura arabiar guztiaren kriminalizazioa gauzatzen ari dira bi pertsonak egin duten ekintza bategatik. Ze autoritate moral daukagu guk, hau da, mendebaldeko munduak, inori lezioak emateko gerra kontuetan, gu izan garenean gerra gehien eragin dituen? Ze autoritate moral dugu erlijio bat kriminalizatzeko, kristautasunak emakumeen eskubideak (abortuaren eskubidea) eta gay eta lesbianen eskubideak uneoro bortxatzen baditu? Zein gara gu arabiarrei “fanatikoak” deitzeko, geurean ere inkisizioa, gurutzadak edo hilketak gauzatu direnean erlijioaren izenean? Konturatu beharko gara noizbait ez garela bakarrik bizi eta mundua ulertzeko milaka prisma eta ikuspegi ezberdin daudela ezta? Bakoitza bere hutsegite eta indarguneekin, noski. Ea burua zertxobait zabaltzen dugun eta besteen etxea epaitu aurretik geurea garbitzen hasten garen behingoz.



Esaera da Mikel, historia, hildakoei buruz biziek kontatzen dituzten istorioak direla; oraingoan ere alde ederra egongo da Paris eta Belgikako gertakizunak baten edo bestearen ahotik entzutean. Kontakizun edota gertaera hauek zerbait ikasteko balio digute sarri, baina beste ba-tzuetan badirudi ez dagoela asmatzeko modurik. Alde batetik kezagarria iruditzen zait, erlijio baten izenean horrelako sarraskiak burutzeko prest dagoen jendea egoteak, baina beste aldetik beraien argumentu edo arrazoiak ezagutzea ere gustatuko litzaidake,



Aitor Irastortza

“Indarkeria baino komunikazio bide eraginkorragoak daudela sinesten dut”

honen atzean arazo bat dagoela agerikoa baita. Gure inguruan berriz, lehenik barnean genituen aurreiritziak indartu eta gure girokoak ez direnekiko mesfidantza handitzeko arriskua dago, hau, errugabeek ordainduz. Boteretsuek gainera, krisi ekonomikoarekin egin bezala, jendearen izu edo shock egoera probestuz politika kontserbadoreagoak bultzatu nahi dituzte, indar armatuetan gehiago inbertitu eta soldaduska berriro indarrean jartzea bezalako ideiak plazaratuz. Guzti honen aurrean, heziketa lan garrantzitsu bat dagoela egiteke deritzot eta ez hurrekin soilik. Berdintasuna eta errespetua bolo-bolo darabiltzagun arren, errealitatean ez ditugu praktikara behar beste ermaten eta etengabe bata bestearen gainetik jarriz gabiltza. Bakoitzak bere sinesmen edota pentsamenduak eduki litzake, horiek azaldu eta defenditzea zilegi delarik, baina parekoa konbentzitu ezin dugunean gurea inposatzea, ez zait onargarria iruditzen. Ur handitan sartzearen sentazioa dut hau idaztean Mikel, baina errealitateak behin eta berriro erakusten digu mundu aurreratuan bizi garela pentsatzen dugun bitartean, hainbat oinarritzko baloreren galera pairatzen dugula. Indarkeria baino komunikazio bide eraginkorragoak daudela sinesten dut eta azken kasu honetan ere, bi aldeek lehenbailen elkarri entzutea nahi nuke, alperrikako gertakizun krudelak ekidin eta benetako soluzioak emanez.



Koldo Nuñez-Betelu

LUZE

# Umearen benetakotasunaren alde

Haur jaio berriak ama behar du zeregin guztietarako. Ama eta haurra bat dira, haurraren ikuspuntutik, eta bat izaten segitzen dute hainbat hilabetetan zehar, umeak kanpoko mundua existitzen dela jakin arte. Haurrarentzat izugarri garrantzitsua da bere ahoa, jaiotzean amarekin harreman zuzenean jartzeko erabiltzen duen ia bakarra, begiek oraindik ezer gutxirako balio baitizkio-te. Ahoa eta ahoak sentitzen duena. Amak, bularren bidez elikatzen du haurra fisiko eta psikologikoki; horregatik, umeak maiz behar du amaren bularra. Gosea, nekea, kontaktu fisikoak,... behar dituenean, amaren bularra da lasaitzen duen bakarra. Bularren bitartez amaren esnea dator, epela eta gozo-gozoa. Amaren bularretik datorren esne gozoa ahoan sartzean, haurra lasaitu egiten da.

Haurra hazten den neurrian amak uzten dio bularra emateari eta umeak beste jaki batzuk jaten hasiko da, baina betirako geratuko zaizkio memorian gordeta gozoa eta amak ematen zion lasaitasun eta segurtasuna, biak bat eginda. Hortik, etorri ohi da jaki eta gauza gozoak ahoratzeko dugun joera. Nagusi garenean, amaren bular eta esnearen ordezkioak hartzen ditugu, hau da, gozoki, txokolate, pastel eta antzekoak ahoratzen ditugu, bat ere goserik gabe, antsietatea, urduritasuna eta hainbat emozio sentitzen ditugunean. Hortik gozoa ahoratzeak bizitza osoan duen garrantzia. Erraza da, orduan, ulertzea umea zein erraz bihur daitekeen gozoki zalea, memorian gordeta baitauka gozoak zertarako balio duen. Baina ez da umea, besterik gabe, gozokiak jaten hasten dena. Nagusiok gara gozokiak ematen

dizkiogunak, eta ez dizkiegu jaki modura ematen!

Gauzak okertzen hasten dira umeari, lasaitu edo saritu nahian, gozokia ematen zaionean. Erraza da orduan, umea “eros-

“Txiki-txikitatik hasten gara haurrak manipulatzeko”



tea” -konbenzitzea, esaten dugu- edo “sarritzea”, umearen nahien aurka bada ere. Akats larria iruditzen zait niri bide hau, alegia, umearen espontaneotasuna eta gogoak “erostea” gozokien truke, umea konbenzitzea egin behar duela guk nahi duguna berak besterik egin nahi duela sentitzen duenean. “Jarri zaituzte Olentzeroren ondoan argazkirako, karamelua eman go dizu eta!” Umea beldur da Olentzerorekin, ez du bere altzoan eseri nahi, baina gurasoek argazkia nahi dute. Nola konbenzitu? Gozokiak emanetz! Horrela abiatzen

da haurraren manipulazioa eta horrela hasten gara nahasten haurrak dituen benetako gogoak. Gurasoek, hezkuntza mundukoak eta nagusiak, orokorrean, (ez beti, jakina, baina bai gehienok eta oso maiz) saria eta zigorraren teknika erabiltzen hasten gara horrela. “Nik nahi dudana, zure gogoen gainetik pasatuta, egiten baduzu, saria emango dizut”. “Zintzoa bazara, Olentzerok eta Erregeek opariak ekarriko dizkizute, bestela ikatza edo ezer ere ez”. Eta hau bihurtzen da bizi osorako gauzak lortzeko bide bat. Zintzoa bazara, alegia mandamenduak betetzen badituzu, Zerua, bestela, infernua. Saria eta zigorra, pertsona bere benetakotasunetik urruntzeko.

Txiki txikitatik hasten gara haurrak manipulatzeko. Horrela, jakina, mezu okerra ematen diegu. Ume txikiarentzat gurasoak eredu garrantzitsuak dira eta gurasoek ez dute akatsik egiten. Hortaz, haien barruan borroka latza bizi dute hasieran, gurasoek egiteko esaten dietenaren eta umeek egin nahi dutenaren artean. Umea hezteko, mugak jarri behar zaizkio, noski, baloreak eman behar zaizkio, bizitzarako tresnak irakatsi baina manipulazioak ez luke tokirik izan beharko umearen heziketan. Nagusiak, konturatu gabe ere, etengabe erortzen gara bere horretan. Horrela, umeak poliki poliki ahaztu egiten ditu bere errealitatea eta benetako izaera. Beste bide bat hartu behar dugu. Entzun umeari eta kasu egin. Berak zerbait sentitzen duenean, utzi egin behar zaio sentitzen duenari kasu egiten, beti ere, mugak daudela ahaztu gabe. Mundua aldatu nahi badugu, umeen heziketatik hasi behar dugu, bestela orain arteko akatsetan eta bide okerretan ari gara sartzen gure umeak berriz ere.

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15  
948 60 47 24**

**TAXI  
SOROA  
609 168 217  
Bederatzi plaza**

**CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.**  
ZURGINTZA OROKORRA  
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI  
Telefonoa eta Faxa: 948507343  
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

**OGI-BERRI ALTZA**  
Aralar kalea, 41  
Lekunberri  
**OGI BERRI**  
OKIN ARTISAUAK 948604884





# Euskal Estatuia

Euskal Estatuaren nortasun propioaren adierazgarri herri instituzioak ziren. Erakunde hauek foruetan zuten oinarria, adibide gisa Infantzoiak aipatuko ditut. Infantzoiak herri erakundeak ziren. XIII. eta XIV. mendeetan garrantzi handia izan zuten gizarte eta monarkiaren arteko harremanetan. Herri erakunde honek behe eta erdi mailako nobleziak osatzen zuten, baina baieztapen hau ez da guztiz zehatza. Garai hartan herritarrek, gehienak baserritarrak eta nekazariak, errenta ordaindu behar zioten tenienteari eta honek diru honen parte bat erresumaren defentsarako erabiltzen zuen. Hau ez zen eskubide feudal bat, zerga-ordainketa bat zen erresumaren defentsarako. Baserritar edo nekazari hauen artean bazegoen talde berezi bat ez zituenak karga hauek. Talde berezi hau Infantzoiak ziren. Dena den argi utzi behar da Nafarroako erresuman ez zegoela nekazari eta lurraren arteko "lotura", ohikoa den bezala feudalismo klasikoan.

Infantzoiak beraien justizia auzitegi propioa zuten, herri erakundea independentea zen eta estamentu ofizialetik kanpo lan egiten zuten herriaren alde. Monarkiaren botere exekutiboak kontrolatzeko sortutako herri erakun-

## “Nafarroako erresuman ez zegoen nekazari eta lurraren arteko loturarik”

dea zen. Honen adierazle da Champagneko dinastia Antzinako Forua eta Foru Orokorra onartzea lortu zutela. Borroka dinastikoetan eragin handia izan zuten. Herri botere hau ez zuen kontrolatzen ez goi nobleziak, ez errege-erreginek ezta Batikanoak, hau hola izanda azkenean, kostata, Evreux etxeak Nafarroako erresuman ezarri zenean, dinastia honen bigarren erregeak Karlos II. Gaiztoak, lortu zuen erakunde hau desagerraraztea. Hala ere, akaso, herri erakunde honen betebeharraren eraginez errege honek kontuen Ganbera sortu zuen 1365.

Infantzoiaren leloa “Pro libertate patria gens libera state” (Aberriaren askata-

sunagatik, herria izan libre) eta honek esan nahi du aberri aske bat izateko beharrezkoa dela herria libre izatea bere erabakiak hartzeko inor gainerik izan gabe. Beste modura izanda lehen-dabizi komunitatea, gizartea da eta gero erregea eta nire ustez, guzti hau, harreman zuzena du altxamendu erri-toarekin, herriak altxatzen du errege hautatua, boterea herriak ematen dio eta ez jainkoak. Infantzoiaren lema haur oroitarazten digu eta gure oroimen kolektiboan sentimendu hau markaturik dago, herriak erabakitzen du eta herriari errespetua zor zaio.




**GRUPO TANATORIO**  
**IRACHE**  
 TANATORIO TALDEA

948 19 70 70  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-  
 LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

**ETXEZ ETXeko EGUR SALMENTA**

URTE OSAN ZEHAR

EGURRA  
**EXPRES**

☎ 635 90 91 95  
 ✉ [promanburillo@gmail.com](mailto:promanburillo@gmail.com)

Erbiti, Basaburua

Gure egurraren kalitatea eta prezioak ikusten dituzunean kea aterako diezu



## *Garai berriak Lekunberriko Abesbatzan*

*Lekunberriko Abesbatzak zuzendari berria du. Javier Martijak hartu berri du orain arte Juan Miguel Etxarrik betetako lekua. Eguberrietako kontzertuarekin amaitu zuen Juan Miguelek bere zuzendari lana eta Aste Santuan eskainiko duten kontzertua eta entsaioak jada Javierrek zuzenduko ditu.*

Nahiz eta data zehatzik ezin jarri abesbatzaren sorreraz hitz egiterakoan, 1973. urte inguruan hasi zen talde bezala entsaioak egiten. Baina Lekunberrin beti izan da abesteko tradizioa. Juan Miguel: "Gizonezkoen eta emakumezkoen abesbatzak zeuden garai batean, emakumezkoek, "las Hijas de María", maiztean bi ahotsetara abestu ohi zuten, bezperak izaten ziren eta gizonezkoek ere festetan Refice Meza abesten zuten. Adibidez, Maximo Hernandorena apez egin zenean ere abestu genion". Don Jesus Jaimerrenari esker joan zen forma hartzen. Juan Miguelek gogoan du otxoteen lehiaketa batera joan zirela: "Ziur aski Don Jesus etorri eta handik gutxira egin genuen lehendabiziko gauza izan zen, Zangotzan lehiaketa bat bazela eta

joan behar genuela esan zigun eta hara joan ginen, Juanito Etxarri, Norberto Navarro, Juan Bautista Goikoetxea...".

Don Jesusek herriko txikienak apeztean bildu ohi zituen eta han solfeoa erakusten zien, herriko askok berarekin ikasi zuten txistua edo pianoa jotzen. Bien bitartean ordurako Juan Miguel hasia zen Orfeoi Donostiarrean abesten, eta handik urtebetera Iruñeko Orfeoian. Seminarioan ibili zen garaian ikasi zuen solfeoa, eta han ere bazen abeslarien eskola bat eta han hasi zen lehenik abesten. Don Jesusek antolatu zuen den lehen entsaio haietan jendea biltzeko, Javier: "Kalean ikusten bazintuen hurbildu eta entsaiora joatera animatzen zizun". Berak antolatzen zuen zer abestu, partiturak eta guzti, Juan Miguelek zuzendari



lana baino ez zuen egiten. J.M.: *“Don Jesus etorri zenean inork ez zekien solfeorik, ni salbuespena baino ez nintzen seminarioan ibili nintzelako horregatik nahiko modu naturalean suertatu zen entsaioak zuzentzen hastea”*. Hasieratik Don Jesusek obra serioak aukeratzen zituen abesbatzak abestu zitzaizkion, solfeoa ez zekiten bost edo sei sopranoekin eta instrumentuen laguntzarik gabe Alelulla abestu zuten behin. J.M.: *“Orain abesten ditugun obrak orain dela 40 urte ere abesten genituen, orain pentsatzen hasita astokeria hutsa zen, baina... Kalitatea ez zen horren ona izango baina giro ederra izaten zen”*.

Denborarekin pixkanaka Don Jesusekin solfeoa ikasitako gazteak abes-

batzan sartzen joan ziren. Don Jesusek egindako lanari esker, egun asko dira partiturak erraztasunez irakurtzen dituztenak eta abesti berriak ikasteko arazorik ez dutenak. Ateraldiak ere egin

## “Egun abesten ditugun obra asko kantatzen genituen duela 40 urte”

zizuten berak antolatuta. Txikienak lehiaketetan parte hartzen zuten, Beraienen, Burlatan... sariren bat edo beste ere irabazi zuten.

Egun 40 lagun inguruk abesten dute

abesbatzan. Ostiraletan bildu ohi dira arratsaldeko zortzietan apezetxean uzten dieten salan. Urtean bi kontzertu egiten dituzte gutxienez, Aste Santuan eta Eguberrietan. Javier: *“Lekunberriko festetan abestu ohi dugun Refice Mezarako zertxobait entsaiatzen hasten gara eta gero Urritik abendura arte Eguberrietako kontzerturako entsaiatzen dugu. Abenduan bi edo hiru asteko deskantsua egiten dugu eta berriz ere Aste Santuko kontzertuari begira jartzen gara. Behin kontzertu hori bukatuta urrira arte jai egiten dugu. Tarteka ezkontzaren bat edo emanaldi bereziren batean parte hartzeko biltzen gara baina bestela horiek izaten dira urteko emanaldiak”*.

*Javier Martija eta Juan Miguel Etxarri*



**Urte guzti hauetan gorabeherak pasako zenituzten ezta?**

**Javier:** Bai izan dira, baina normala da, 40 urtetan gauza asko gertatzen dira. Duela lau edo bost urte beherakada nabaritu zen eta nahiko urte zaila izan zen. Nik askotan esan izan dut, abesbatza honetan, zuzendariak, kasu honetan Juan Miguelek bere gain hartzen zituela erantzukizun guztiak. Eta halako abesbatza batean ezin diozu inorri entsaioetara etortzera behartu bakoitzak abesbatzarekin duen konpromisoa beti ez da berdina. Horregatik, askotan kontzertuak antolatu eta bezpera iristen denean zuzendariak berak ez du jakiten ea jendea etorriko den edo behar bezala erantzungo duen. Bestalde, organo-joleek ere lan handia izaten dute kontzertuak prestatzeko eta jendeari konpromiso hori eskatzea ez da erraza. Orain nik uste nahiz eta jende kopurua

ez den igo jendeak konpromiso gehiago hartzen ari dela abesbatzarekiko. Eta hori oso positiboa da taldearentzat, ezinbestekoa.

**Juan Miguel organo joleei ere zuk prestatzen zenien?**

**Juan Miguel:** Organo joleak beraiek dira abestiak prestatzen dituztenak, beraiek nik baino askoz ere gehiago dakite. Guk abestu ohi ditugun kantak nahiko konplikatuak izaten dira eta ordu asko eskatzen ditu halako abesti bat organoarekin jotzen ikasteak. Horregatik Mirentxuri, Beleni, Itziarri edo Lourdesi halako lana eskatzea ez zait inoiz erraza egin.

**Javier:** Horri dagokionez, uste dut Don Jesusek duela gutxi arte lan hori egiten zuenez kezka hori ez genuela. Bera adibidez Mirenengana joaten zen eta -Hau jo prestatu behar da!-, eta berak esaten zuena bete egiten zen.

**Don Jesusek egiten zuen lan hori izan da beraz azken urte hauetan faltan sumatu duzuen...**

**Juan Miguel:** Bai, berak antolatzen zuen dena, nik zuzendu egiten nuen eta au-

rera. Batzuetan ez ginen ados jartzen erreperitorioarekin baina lan asko kentzen zidan niri. Jendea lana eta konpromisoa eskatzea ez da erraza eta hori berak egiten zuen. Azkenaldian egia da jendea kontzientziatuago dagoela eta konturatzen dela denok beharrezkoak garela eta garrantzitsua dela entsaioetara etortzea.

**Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desoreka arazorik izan duzue inoiz?**

**Juan Miguel:** Orokorrean ezagutzen ditudan koru guztietan dago gizonezko ahots gehiagoren beharra. Normalean gizonezko gutxiago izaten dira. Gure kasuan ere ongi legoke gizonezko ahots gehiago bagenitu, baina orain nahiko orekatuta gaudela esan dezakegu. Baina ongi etorriko litzaziguke gizonezko zein emakumezko gehiago. Batez ere jende gaztea botatzen da faltan.

**Gazteak animatzeko modurik ez al duzue pentsatu?**

**Javier:** Hori nire eginbeharren zerrendan daukagu. Don Jesusen garaian oso erraza zen dena, eskola bukatu eta berarengana etortzen ginen solfeora eta hor-



ten txistua eta duela lau edo bost urte taldetxo bat hasi zen herrian txistua jotzen, Aralar Musika Eskolan izen eman zuten eta ni ere hasi nintzen. Gogoz ikusten nituen eta ideia ona iruditu zit-zaidan.

“Zuzentzen baino, laguntza gehiago beharko dut antolakuntzan”

tik hel-  
duekin

abeste- ra pasatzen ginen. Duela lau urte gazte batzuk hasi ziren, baina beti faltan sumatzen da. Lau pertsona entsaiora etortzen ez badira nabaritu egiten da eta erabat zintzilik gelditzen gara.

**Juan Miguel:** Duela bost urte arte Don Jesus zen abesbatzaren antolatzailea eta elizari ia eskusiboki lotuta zijoan talde bat zela esan daiteke, baina orain garai berriak dira eta uste dut hemendik aurrera abesbatzak askoz ere irekia- goa behar duela izan.

**Javier:** Bai, abesbatzaren barruan me- zara joan ohi den jende asko dago, bai- na asko ez dira joaten, horregatik gure asmoa elizara joan ohi diren pertsonaz osatutako taldetxo hori mantentzea da baina aldi berean, abestea gustatzen zaion edonor egiten ditugun kontzer- tuetan parte hartzera gonbidatzea.

**Edonor has daiteke abesbatzan abesten?**

**Juan Miguel:** Bai gazte zein heldu, abestea gustatzen bazaio, hori da ga- rrantzitsuena. Nire helburua beti izan da entsaioetan gustora egotea eta ongi pasatzea.

**Javier:** Askotan pertsona berri bat koro batean hasten denean kokilduta sen- titu ohi da, gainontzekoek jada oinarri bat badutelako eta abesti bat entsaia- tzen hasi eta gainontzekoek gutxi gora- behera badakitelako. Hasieran galduta sentitzea normala da, horregatik jende berria sartzen bada behar adina aldiz entsaiatuko da pertsona horrek ikasi arte, beldurrik ez dezala izan inork.

**Orain txistua ere sartu duzue...**

**Juan Miguel:** Bai azken lau urteotan txistua ere sartu dugu kontzertuetan. Garai batean herritar askok jotzen zu-

**Errepertorioari dagokionez aldaketa asko izan dira?**

**Javier:** Oso errepertorio zabala dauka- gu. Beti ezagutzen dugu errepertorio hori mantentzen saiatzen gara baina pixkanaka abesti berria sartuz. Hau da, kontzertu batean ez dira abesti guztiak berriak izaten, ezagutzen ditugun lauzpabost abesti aukeratzen ditugu eta pare bat berriak ikasten ditugu. Eta horrek ongi funtzionatzen duela irudi- tzen zait.

**Nolatan hartu duzu zuzendaritza uzte- ko erabakia?**

**Juan Miguel:** Ba nekatzen joan naize- lako. Aipatutako konpromiso faltak eta jendeari mesedeak eskatzen ibiltzeak nekatu egiten zaitu, gero jendearen erantzuna ona denean, animatu egiten zara baina nire urteak ere badituz... Uste dut orain arte ahal nuen guztia eman dudala eta hemendik aurrera ere lagun- tzen eta kantatzen jarraituko dut noski!

**Eta zu Javier nolatan animatu zara zu- zendari lanetan hastera?**

**Javier:** Juan Miguel nahiko nekatuta zegoela ikusten nuen eta berak uzte- ko erabakiaren berri eman zigunean, abesbatzako zenbait kidek animatu egin ninduten. Nik uste abesbatzan badela zuzentzeko ni baino gaituagoak daudenak baina inork bere burua aur- kezten ez zuela ikustean nire burua aurkeztu nuen. Zuzentzearenak baino gehiago antolaketak eskatzen duen lanak arduratzen nau, horregatik lau edo bost pertsonako talde bat osatzea da nire asmoa, erabakiak hartzeko eta antolakuntza denon artean eramateko. Adibidez, ezkontza batean abesteko eskatzen badigute erabakia nirea izan beharrean, denon artean ikusi beharko dugu zenbat egon gaitzekoen prest eta ondoren erantzun.

**Juan Miguel:** Nik asko eskertzen dizut Javier zu animatu izana. Niretzako ara- zo bat zen, nik uzten banuen abesbatza zintzilik geldituko zela ikusten nuelako eta abesbatzak aurrera ez egitea pena zen, herri honetan betidanik abestu izan dugulako. Horregatik Javier nire le- kua hartzeko prest zegoela ikustea poz handia izan zen eta abesbatzako gai- nontzeko kideek lagundu eta animatu egin behar diogu.

**Zu abesbatzan gaztetatik hasi zinen ezta?**

**Javier:** Bai, ni nire kintakoekin batera hasi nintzen. Sei edo zazpi urte genitue- nean, eskolatik irten etxean bazkaldu eta korrika apezetxera etortzen ginen txistua edo pianoa jotzera, gero berriz eskolara joan eta handik irten eta buel- ta apezetxera. Horrela hasi ginen eta gero abesbatzan sartu ginen.



Don Jesus Jaimerenari esker hasi zen abesbatza biltzen. Arg: J.A. Garaikoetxea.





Eguberrietako kontzertuan abesbatzatik pasatako kideak batu ziren Juan Miguel omentzera. Arg: Juan Antonio Garaikoetxea.

### Orfeoian ere ibilitakoa zara...

**Javier:** Iruñeko Orfoiarekin eta Donostiarrarekin ere abestu izan dut. Baina zuzentzen ez dut inolako esperientziarik. Batzuetan Juan Miguelek ezin zuzentzen niri jarri ohi zidaten ordezkapena egiteko edo kontzerturen batean Juan Miguelek abesten zuen momentuan ni jartzen nintzen zuzendari, baina hortaz aparte ez dut esperientziarik.

**Juan Miguel:** Zuzentzea niri betidanik atara zaidan zerbait da, baina ez da erraza, batzuei ezjakintasunarengatik erraza iruditzen zaie, baina denen aurrean jartzeak errespetua ematen du.

### Eguberrietan zuzendu zenuen azken kontzertu hartan omenalditxo bat ere egin zizuten...

**Juan Miguel:** Sorpresa handia izan zen, nik ez nuen ideiarik. Kontzertua bukatzen dugunean, normalean berehala erretiratzen gara eta aldi hartan bukatu eta inor baino lehenago Luis Arratibel jaitsi zen... Kar, kar, kar....

### Omenalditxoa nola prestatu zenuten Javier?

**Juan Miguel:** Gure artean omenalditxo bat egin behar geniola hitz egiten hasi ginen eta behin entsaio baten ondoren Mitxasenean bildu ginen denak. Gure aldetik oroigarriren bat emateaz gain egokiena zerbait abestea litzatekeela iruditzen zitzaigun. Nik gogoan nuen duela urte batzuk berak Refice Mezarako abesbatzan egondako kideak biltzeak ilusioa egiten zionaren aipamena egin zuela. Eta horrela suertatu zen Abesbatzatik pasatako pertsonak omenaldian parte hartzeraz gonbidatzea.

### Eta nola egin zenuten bera ez ohartzeko?

**Javier:** Denok entsaiatzeko bildu behar genuen egunean Juan Miguel etxean sartuta edukitzeko modurik onena biloba ekartzea zela pentsatu genuen. Eta hala egin genuen. Pedro Grullo abestia denok ezaguna genuen eta hori abestu genion.

**Juan Miguel:** Niri egia esan, ilusio handia egin zidan publiko artetik abesbat-

zan kantatutako kideak irteten hasten zirela ikusteak.

### Bertso batzuk ere prestatu zenituzten...

**Javier:** Bai hori Maitane Urbizuk, Ainara de Carlosek eta Aitziber Eletak prestatu zituzten, artista batzuk dira gauza horietarako eta oso polita atara zen.

**Juan Miguel:** Erabat unkitu nintzen, denoi hor ikusteak izugarri poztu ninduen.

### Aste Santuan eskainiko duzue hurrengo kontzertua eta jada zuk hartuko duzu lekukoa?

**Javier:** Bai. Nik uste orain arteko bidea oso ona izan dela eta bide berari eustea da nire asmoa. Eta denon laguntza behar harko dut, eta hasieran Juan Miguelen laguntza ere baherako dut nondik nora jo jakiteko. Bestalde, espero dut jende berria ere animatzea, inork abestea gustoko badu etor dadila entsaioren batera eta probatu dezala, esku zabalik hartuko dugula. —



**JUANLUZENA  
SAGARDOTEGIA**

**Sagardotegiko menua**

Urtarriletik maiatzera

Ostiral gau eta asteburuetan



**948604571**  
**Oderitz**

*Martitxonea*  
sagardotegia

**Inaxio Begiristain**



**Aldatz**  
**Nafarroa**

**948604607**



## 20 urte, 20 abesti

Berri Txarrak taldeak 20 urte bete dituen honetan, disko berria kaleratu du eta Kantinan Mailoperen aldeko kontzertua eskaini zuen joan den hilean.

Bi hamarkada bete berri ditu Berri Txarrak taldeak eta behar bezala ospatzeko disko hirukoitza kaleratu du, “Denbora da poligrafo bakarra”. Egun Gorka Urbizuk, David Gonzalezek eta Galder Izagirrek osatzen dute taldea. Joan den urtea entsaiatzen eta grabaketa lanetan eman ondoren, aurtun zuzenekoak ematen ibiliko dira. *“Ilusioz beteta gaude trilogiarekin eta kantu berriok jendearekin partekatzeke irrikitan”*. Dagoeneko ekin diote birari eta udara bitarte 35 kontzertu inguru dituzte aurreikusita. Horietarik lau Euskal Herrian izango dira, baina gainontzekoak hemendik kanpo, *“Kilometroak egitea tokatzen zaigu orain: Paris, Madril, Bartzelona, Berlin, Texas... etxean gutxi ikusiko gaituzte udaberrian!”*.

**“Denbora da poligrafo bakarra” da zuen lan berria. Zein da izenaren esanahia?**

Batetik denboraren iragaiteari eta konstantziari egiten dio erreferentzia, Berri Txarrak sortu zenetik 20 urte bete diren honetan. Bestetik kultura eta musika kontsumitzeko modua hainbeste aldatu den honetan, iruditzen zaigu dena oso azaletik entzuten dugula, behar den arreta jarri gabe, eta alde horretatik kulturarako beste denbora baten aldarrikapen bat ere bada (Testuinguru honetan disko hirukoitz bat plazaratzeak ere badu zerbait jarrera horretatik).

**Hiru diskoz osatutako lana da hiru produktore ezberdinekin egindakoa. Ze**



### ekarpen egiten dio produktore bakoitzak zuen lanari?

Nahiko obra poliedrikoa da, Berriren aurpegi musikal ezberdinak –batzuk behintzat– jasotzen dituena. Kantak konposatzen hasi aurretik erabaki genuen ideia polita litzatekeela 3 zatitan banatzea eta disko bakoitzari ikuspuntu diferentea ematea. Ross Robinsonek amorrua eta giro iluna landu ditu, Ricky Falknerrekin pop doinuetatik gertu ibili gara, konplexu guztiak alboratuta eta Bill Stevenson iaioa da punk rock zuzena lantzen. Azken honetan 2 minutuko kantak dira eta bapatekotasun hori ez galtzea izan zen gure buruhauste nagusia.

### 20 abesti, 20 urte, ez da kasualitatea...

Horixe izan zen lana honen abiapuntua. Guri ez zaigu gustatzen aurretik egindakoa gehiegi jotzea, baina 20 urte ez dira beti betetzen. Horregatik gure mezua izan da: “ondo, hau ospatu beharra dago, baina ez ohiko bilduma lan edo atzera-begirako batekin, baizik eta sortzen ospa dezagun. Barruak sortzea eskatzen digu beste edozeren gainetik eta uste dut nahikoa garbi utzi dugula oraingoan.

### Erantzun ona jasotzen ari zarete? Donostian hasi zenuten bira, lau kontzertu eta sarrera guztiak agortuta...

Harrিতa gaude harrerarekin, oso-oso pozik. Inpresioa daukagu lan honekin koska bat gora egin dugula, aurrerapauso bat. Honelako lan potolo batek bazituen bere arriskuak, baina uste dugu entzuleak eskertu egiten duela erosokeriatik aldentzeko egiten dugun ahalegin hori.

### Ze balorazio egiten duzue 20 urte hauetaz?

Abentura aluzinante bat izan da eta izaten ari da. Mundu osoan jotzeko aukera



izan dugu eta batez ere gure kezka, sentimendu eta galderei bide eman ahal izan diegu kantuen bitartez. Jendeak kantatu horiek zuk bezainbeste sentitzea gauza handia da, zerbaiten parte sentiarazten zaitu. Eskerrak eman beharrean gaude, hau posible egin duen orori: dela entzule, musikari, lagun, etsai...

### MAILOPEREN ALDEKO KONTZERTU SORPRESA!

Errege bezperan Berri Txarrak taldeak ezusteko zuzeneko bat eskaini zuen Lekunberriko Kantinan gure aldizkariaren alde eta horri esker Mailopek 800 euro jaso ditu. Eskerrik asko beraz, Berri Txarrak taldeari eta Kantinari beste behin aldizkari honen alde erakutsitako eskuzabaltasunagatik.

### Mailoperen aldeko kontzertu bat eskaini zenuten Kantinan. Nolatan?

Aspaldi genbiltzan halako keinu bat egiteko asmoz eta oraintxe sortu da aukera. Guk gure aletxoak besterik ez dugu jarri, beste askok ahal izan duten moduan egin duten bezala. Ez da erreza beti erresistentzian ibili behar izatea, beraz animo!

### Kontzertu sorpresa izan zen...

Ezin bestela izan, Kantina ez delako oso handia, baina halako ‘gerrilla’ kontzertu bat egiteko ezin aproposagoa da. Gau ederra izan zen.

### Zer moduzko giroa sumatu zenuten?

Areto txikiak kontzertu handiak. Hala izaten da sarritan eta uste dut oso giro berezia sortu zela hasiera-hasieratik.

### Aldizkaria osatzen dugunon partetik eskerrak baino ezin dizuegu eman...

Eskerrik asko zuei eskualdeari eta hizkuntzari egiten diozuen ekarpenarengatik.



## *Aktore izatearen gazi-gozoak*

- 16 -



*Patxi Bisquert aktorea Astitzen bizi da azaroaz geroztik. Bere bizitzako urte gehienak Gasteizen eman zituen, baina azken hamahiru urteotan Galizian bizi izan ondoren Euskal Herrira itzuli da Valeria emaztearekin eta 3 urteko Uma neskatorekin.*

Patxi, Valeria eta Uma txikia azaroaz geroztik Astitzen bizi dira eta beraiekin izan gara Patxiren aktore ibilbidea gogora ekarriz.



### **Nolatan erabaki zenuten Astitzera etortzea?**

Hamahiru urte neramatzan Ourense, Galizian, bizitzen eta nire emazteak ere gogo zuen hona etortzeko. Umea eskolan hasi berria zen eta euskaratu egin nahi genuen. Valeriak berak ere euskaraz ikasteko gogo zuen eta horrek bultzatuta etorri gara. Hasieran ez genekien zehazki nora joan. Argi genuen Nafarroara edo Arabara joan nahi genuela, alde batetik etxebizitzaren alokairuak merkeago daudelako eta ni giputxia izan arren inguru hau gehiago gustatzen zaidalako, hemengo basoak, Galizian aspertuta nengoen eukalipto betetako basoak ikusteaz. Baztan eta Malerreka inguruan etxebizitza bilatzen ibili ginenean, baina azkenean hona etortzea erabaki genuen. Ni hemen askotan ibilia naiz, bai Aralarren eta baita Araitzen ere, gustokoa izan dut beti.

### **Emaztea, ttikia eta hirurok etorri zarete...**

Bai, emaztea jaiotzez argentinarra da baina aita galegoa du. Hiru seme alaba ditut, Uma ttikiena gurekin etorri da, beste biak oporraldietan etorriko dira, Galizian bizi baitira euren amarekin.

### **Azken urte hauetan zertan ibili zara?**

Zine mailan ez dut lan gehiegi egin, baina sagardotegi bat eta landetxe bat zabaldu nituen Galizian eta pelikularen batean edo telesailen batean lana ateratzen zitzaidanean lanera. Orain sagardotegia saltzeko dugu.

### **Eta hemen zer moduz moldatzen ari zarete?**

Bueno ondo, gu berehala bertakotzen gara, Uma dagoeneko eskolan hasi da, Valeria AEK-an, Olentzeroa herrian ospatu genuen eta gustora.

### **Zu Zizurkilen jaioa zara...**

Bai, ni jaiotzez zizurkildarra naiz, Fraisoroko semea, handik amak 5 urterekin atera ninduen eta amonarekin bizi izan nintzen Hondarribian hamabi urte bete arte. Gero amarekin bizitzera joan nintzen Eibarrera.

### **Zuek zenbat senide zarete?**

Bost gara, ni zaharrena naiz, ama bigarren aldiz ezkondu zen eta besteak bigarren senarrarenak dira. Nire aita Cuencakoa zen, nahiz eta abizena katalana izan.



Jose Mari Asin eta Nacho Martinezekin "Tasio" pelikularen errodajejan.

## **“Hamahiru urte kanpoan eman ondoren, Euskal Herrira etortzeko gogo genuen”**

### **Oso gazte hasi zinen lanean ezta?**

Bai hamalau urte egiteko nituela hasi nintzen lanean Eibarko lantoki batean.

### **“La fuga de Segovia” izan zen zinean egin zenuen lehen lana...**

Bai, nik zerikusia nuen benetako historiarekin, benetako Segoviako ihesa prestatzen ari ziren garaian ni barruan nintzen, ihes egin zutenerako ni kalera-tera atera bainintzen, Erregea sartu zenean eman zuten indultu txiki bati esker. Baina nik Segoviako ihesean parte hartu nuen bai barrutik eta baita kanpotik ere.

### **Eta Imanol Uribek bere lanerako aukeratu zintuen...**

Bai, pelikula prestatzen ari zela, Egin egunkarian Angel Amigok idatzitako liburua pasarteak argitaratzen zituzten eta ni Gasteizko lantegi bateko fre-sadoran lanean azaltzen nintzen argazki

bat argitaratu zuten behin Segoviako ihesari buruzko nire kontakizunekin. Imanolek hori irakurri zuenean koprodukzioko jendeari ni aurkitzeko esan zuen eta horrela Donostiako Maria Cristina hotelean egin zuten casting-era joan nintzen. Ea parte hartu nahi nuen galdetu zidaten eta baietz.

### **Aurreko esperientziarik gabe ezta?**

Ez, nik aurretik ez nuen halako ezer egin, eta gero ere ez nuen horretan jarraitzea pentsatzen. Baina handik bi urtera produktore berberak, Angel Amigok, berriz ere “La conquista de Albania” pelikula egiteko deitu ninduen. Gero jarraian etorri ziren “Akelarre”, “Tasio”....

### **“Tasio” izan da dudarik gabe parte hartu duzun pelikulen artean arrakastatsuen...**

Bai, azken 30 urteotan gehien ikusi den pelikula izango da, bai telebistan eta baita zinean ere. Azken urteotan beste pelikulak ere egin ditut, adibidez “Celda 211”-k ere harrera handia izan zuen, ezin da alderatu, hemendik 30 urtera ez baita pelikula hori ikusiko “Tasio” ikusi izan den bezala.

### **“Tasio” pelikulan gainera protagonista zinen...**

Bai, bueno berez hiru protagonista gauden. Tasioren papera bera hiru aktore ez-

## elkARRIZketa:

*“Gran Sol da egindako lan gustokoenetako bat, nahiz eta ez zuen halako arrakastarik izan”*

berdinek egin genuen, umea, mutikoa eta helduaren papera egiteko. Badira beste pelikula batzuk ere oso gustokoa ditudanak, adibidez, “Gran Sol”. Ez zuen harrera handirik izan, baina Inaxio Aldekoaren eleberrian oinarrituta dago eta lan izugarria da. Seguru aski Itsasoaren inguruan idatzi den gauzarik ederrenetarikoa. Eta pelikula ere ederra da.

### **Pixkanaka lan gehiago etortzen zirela ikusita, interpretazio ikasketak egin zenituen?**

Ez, beti autodidakta izan naiz, ikastaro batzuk egin izan ditut, baina oso gutxi.

### **Eta “Tasio”-ren grabaketa lanak zer moduzkoak izan ziren?**

Gogorrak, mendian, euri azpian, hotza, korrika asko egin behar...

### **Benetako Tasio Ochoa ezagutzeko aukera izan al zenuen?**

Bai ezagutu nuen. Kontratua 1983ko irailean sinatu nuen eta 1984ko martxoan edo apirila arte ez ginen erroda-jearekin hasi. Garai hartan ni Gasteizen bizi nintzen eta bera Zuñigan eta astean bi edo hiru aldiz joaten nintzen berarengana. Bera ezagutu nahi nuen, baina batez ere hizkuntza aldetik, bertako dialekto edo erromantze hura belarrira egitea interesatzen zitzaidan. Elkarrekin izaten genituen elkarrizketak grabatu egiten nituen. Mendian nola mugitu, tranpak eta zepoak nola jarri... Hasieran, kosta egin zitzaion konfiantza hartzea, ez zizkidan bere mendiko txokoak erakutsi nahi, baina gero bera izaten zen mendira joatea proposatzen zuena.

### **Zein izan zen pasarterik zailena edo gogorrena?**

Niretzako latzenak mendian izaten ziren, korrika edo bizikletan bizikletan gurdi-bide haietan ibiltzea ere gogorra zen, gainera abiadura handian egitea eskatzen zidaten... Benetako hotza pasatzea ere tokatu zitzaidan. Gogoan dut Urbasan Tasiok aitari Paulina haurdun

dagoela esaten zion sekuentzia hartan bi zisterna ur bota zizkidatela burutik behera. Zisternako ura euri ura baino askoz ere hotzagoa izaten da eta sekuentzia bera behin eta berriz errepikatu behar izaten zen eta hantxe dardarka.

### **Tasio Ochoari zer iruditu zitzaion egin zenuten lana?**

Berak pelikula nire alboan ikusi zuen lehen aldiz eta pelikula hasi eta bigarren minuturako malkotan hasi zen eta pelikula osoa pasa zuen horrela. Montxo Armendariz, zuzendaria, gure atzean zegoen eserita eta bukatu zenean ea zer iruditu zitzaion galdetu zion, eta Tasiok esan zion gauza pila bat utzi genituela jarri gabe, baina negarrari ezin izan zion eutsi.

### **Eta zuk zuk nola eraman zenuen arrakasta hura?**

Ondo ni oso pertsona normala naiz eta ez zitzaidan burura igo, hankak lurrean beti. Tabernetan eta jendeak katxondeo asko izaten zuen: “Tasio, Tasio, Tasio!” baina azkenean horretara ere ohitu egiten zara.

### **Urte guzti hauetan Pelikula batetik bestera bestelako lanik egin izan duzu?**

Bai, bai, Eibarren lanean hasi nintzen tailer hartan geroztik pare bat aldiz egin dut lan, eraikuntzan ere ibili izan naiz, Bizkaia aldean eta Fuerteventuran ere bai eta Galizian ere bestelako lanak egin izan ditut.



### **Beraz, ez da erraza aktore izatea eta hortik bizitzea ezta?**

Oso zaila, gainera hemen ez dira gauza asko egiten eta kobratzen denarekin ere urte osorako ez dizu ematen.

### **Zuzendariekin zer moduzko harremana izan duzu?**

Ni ongi konpondu izan naiz beti, eta aktoreekin ere ez dut arazorik izan. Baina aktoreekin egotea ez zait gehiegi gustatzen, oso bereziak dira, beti lanari buruz hizketan ibiltzen dira eta niri gizartean gertatzen diren beste gauza askotaz hitz egitea ere gustatzen zait, horregatik askotan nire aldetik ibiltzen naiz.

Lau Tasio ditugu argazkian: Tasio Ochoa bera eta pelikulan bizia ematen dioten hiru aktoreak.





## Euskalduna izateak arazorik sortu dizu?

Nik ez dut arazorik izan ez aktoreekin ezta zuzendariekin ere, baina badakit naizen bezala izateagatik ate asko itxi dizkidatela. Adibidez, espainiar lanean gutxitan izan ditut paper garrantzitsuak, nirekin oso identifikatuta ez bazegoen, aldiz Katalunian lan asko egin dut.

## Maiz ETAkide baten lekuan jartzea tokatu zaizu... Zu ere militantea izan zinen...

Bai, "Ehun metro", "La fuga de Segovia", "El amor de ahora" eta besteren batean ere halako paperak tokatu zaizkit. Ni militante oso gazte hasi nintzen, 14 urterekin Juventudes Obreras Catolicas taldean hasi nintzen, orduan Eibarren lantegi guztietan zeuden taldeak. Handik EGIra pasa ginen, baina mugimendu gutxi ikusten genuen eta EGI-Batasuna sortu zen eta ondoren EGI-Batasuna ETA-rekin fusionatu zen.

## Zinemagintzan hasi zinenetik hona lan baldintzak okerrera egin dute?

Bai, askoz ere gutxiago kobratzen dugu, lehen dietak, bidaiak eta kilometrajeak ordaindu egiten zizkiguten eta gaur egun hori dena nire kontutik ordaindu behar izaten dut. Gaur egun bada jendea doan lan egiten ari dena curriculum osatzeko, bekadun bezala, pentsa! Nik egindako azkeneko proiektu handiak edo garrantzitsuak "Las tierras altas" eta "Celda 211" izan dira, baina gainontzekoak egun pare bateko lanak izan dira, oso lan txikiak. Azkenekoa Galizian Estreinatuta berri den "A Esmorga" pelikulan izan zen eta bi eguneko lana baino ez nuen egin.



## Proiektu pertsonal batean ere lanean bazabiltza...

Bai, azkeneko hiru edo lau urteotan Pello Mari Otaño (bertsolari zizurkildarra) zenari omenalditxo txiki bat egiteko lan baten atzetik nabil. Dagoeneko laguntza batzuk jaso ditut, EITB-tik, Etxepare-tik, Udaletik ere, baina diru laguntza garrantzitsuena, Kultura Sailarena, atzera bota zidaten, baina ez dut etsi eta beste bide batzuk bilatzen nabil. Nire asmoa Otañori buruzko luzemetrai bat egitea da, Pello Mariren bertsoak etxean entzun izan ditut txikitatik. Garai hartako bertsolari gehienak baserrikoak ziren, eskola gutxikoak, baina oso abilak eta kultura gizonak, baina Pello Mari oso jantzia eta gizon berezia zen, operak idaztera ere iritsi zen. Gaur egun badira bertsolari intelektualak baina garai hartan ez zen ohikoa.

## Proiektua nahiko aurreratuta dago ezta?

Bai, Koldo Izagirrek oso gidoi polita idatzi du bere kantuekin, eta Joseba

## "Pello Mari Otañori omenaldi bat egiteko proiektu baten atzetik nabil"

Tapiari ere doinua egiteko eskatu nion. Lanean jarraituko dut, hala nola hori aurrera ateratzeko.

## Nola ikusten duzu etorkizuna?

Ba lanean jarraitzea espero dut eta umeak hazi. Baina lana aurkitu ezinik gabiltza. Pentsatzen genuen hemen ez zitzaigula horren zaila egingo lana aurkitzea, baina azarotik hona bai Valeria eta bai ni lan bila gabiltza eta ez dugu lortzen. Nik Eguberrietan Goenkalerako sekuentzia batzuk grabatu nituen hurrengo proiektua irailan daukat, baina tartean ez dut ezer eta beharrezkoa dugu edozein lan mota bilatzea. Eta martxa honetan Galiziara bueltatu beharko gara eta guri hemen gelditzea gustatuko litzaiguke. Beraz, norbaitek behar bagaitu asko eskertuko genioke aukera. —

- 19 -



**Lagunasesoria S.L.**  
Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)

**SAN MIGUEL**  
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099  
Arribe-Atallu

**German Lasarte**  
ARBEONDO  
HARATEGIA  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157



**OKM**  
ABOKATUAK  
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua  
Arretxea, 1º, Alii. Tfnoa: 609 130 555



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak  
Mailope aldizkariaren bitartez!

# KuxKuxean



**Julen**  
*Zorionak!!!!  
Manex, aita eta ama.*

**Izei, Oier eta Araitx**  
Ilbeltzak 16, otsailak 1 eta  
otsailak 8; 7, 12 eta 4 urte.  
*Zorionak hirukote!  
Egon ona pasa eta muxuk  
etxeko guztien partez.*



**Nere Zabaleta Olasagarre**  
*Zorionak Lekunberriko Nere  
Zabaleta Olasagarreri.  
Otsailaren 11 an, 9 urte  
betetzen dituzulako.  
Urte askotarako eta muxu  
haundi bana etxekoan partez.*



**Intza Garaño**  
Urtarrilak 24, 10 urte  
*Zorionak txapeldun etxekoan  
partez. Muxu potolo bat.*



**Leire Estanga**  
*Zorionak Leire! Primerako eguna pasa eta ea  
laister ospatzen dugun!! Iada 2 zembakiarekin hasi  
gara ee, pixkanaka urteak gora doaz. Muxu handi  
bat zure kuadrilaren partetik! :)*



**Lorea Mayayo**  
*Zorionak Lorea! Egun  
ona pasatzea opa dizugu  
polite, eta behar den  
bezala ospatu dezazula  
parranda on batekin. 21  
Muxutxoo zure kuadrilaren  
partetik!!! :)*



**Iñaki Satrustegui**  
*Zorionak Iñaki! Egun polita pa-  
satzea espero dugu, eta gurekin  
ospatzea behar den bezala.  
Jarraitu zaren bezalako izaten.  
Muxu handi bat zure Lekunber-  
riko kuadrilaren partetik! :)*



**Urtzi Arginarena Saralegi**  
Otsailak 5, 2 urte  
*Zorionak eta urte askotarako,  
gure etxeko saltseroari.  
Muxu haundi bat famili guz-  
taren partez.*



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.



## Eguberriak amaitu eta hasi dira inauteriak

Errege Egunaren hurrengo asteburuan ospatu zituzten uitziarrek herriko inauteriak. Eskualdean lehenak izaten dira beti. Euriak eta hotzak asko lagundu ez bazuen ere urtero bezala puska biltzan ibili ziren etxez etxe. Aurtengo maiordomoak Jesus Mari Martirena eta Ander Igartua izan dira, beraien arduratu dira inauteriak antolatzeaz. Aur-

ten berriz ere kartak banatu zituzten hurrengo urteko maiordomoak aukeratzeko eta lehen bi erregeak Pake Otermini eta Maider Galarzari tokatu zitzaizkien.

Horra hor aurtun Uitzin biltutako zenbait irudi.



## Euskara ikasleen neurrira egindako Bertso-Korrika

## Hasi da 2015ko Sagardo denboraldia

Joan den urtarrilaren 16an Lekarozko Larralde Sagardotegian eman zioten hasiera aurtengo sagardo denboraldiari. Dolores Redondo idazlea izan zen txox egiten eta aurtengo uztarekin egindako sagardoa dastatzen lehena. Gurean, lau sagardotegi daukagu bertatik bertara, Lekunberriko Toki Alai, Aldazko Martintxonea, Iribasko Larraun Sagardotegia eta Oderizko Juanluzenea. Maiatzera bitarte sagardoaz eta txuleta ederrez gozatzeko aukera izanen da!

Korrika kulturaren baitan Bertsozale Elkarteak eta AEK-k Bertso-Korrika ekimena jarri dute martxan. Euskara ikasleek aurretik euskaltegian landuko dituzte saioak. Martxoaren 1etik 15era bitarte Euskal Herrian guztira 30 saio egingo dira aurreikusitako antolatzaileek, Larraunen ere egingen da. "Bertso Korrikaren bitartez bertsozalaritza hurbiltzean lagundu nahi zaie euskara ikasleei. Ikasle askorentzat bertso saio bat entzungo duten lehen aldia izango da. Horregatik, saioa azalpenak eta bertsozaleen jarduna egokitu egingo dira, euskara ikasleek uler dezaten". Horregatik, Arkaitz Goikoetxea gai-jartzaileak euskaltegiko klasean saioan egin beharreko ariketen berri eta bertsoa osatzen lagunduko dien irizpideak azalduko dizkie eta ariketak prestatuko dituzte. Euskara ikasleek gainera edozein bertsozale ere parte har dezake. Gurean bertso afaria martxoaren 20an izanen da Astizko aterpetxean.

- 21 -

**asegurogintza**  
aseguru aholkulariak  
**Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezala aseguratu egotea da**  
Telefona: 943652220. [asegurogintza@aseguroak.net](mailto:asegurogintza@aseguroak.net)  
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

**CONSTRUCCIONES GAÑARBE ERAIKUNTZAK S.L.**  
Etxebizitzaren eraikuntza eta errehabilitazioa  
948 504 351 - 616 457 540  
[construccionesganarbe@gmail.com](mailto:construccionesganarbe@gmail.com)  
Oztegin kalea 2, Lekunberri

## Haizeak botatako zuhaitzak eskuragarri

Haizeak botatako arbolak egurretarako edo beste erabileretarako aprobetxatu ahal izateko ordenantza onartu zuen azaroan Beteluko Udalak. Ordenantzaren arabera, Beteluko herritarrek eroritako arbolak egurretarako erabiltzeko baimena lortu dezakete. Eskaera, Beteluko Udalaren idazkaritzan aurkeztu beharko da eta bertan zein zuhaitz aprobetxatu nahi den zehaztu behar da. Zuhaitz bat auzoko batek bakarrik eskatzen duenean zuzenean berari emango zaio, batek baino gehiagok eskatzen duten kasuan, ordenantzan aurreikusten denaren arabera erabakiko da nori ematen zaion. Herritarrek ez dute ezer ordainduko egurrengatik. Aurten, sei zuhaitz markatu dira Lulota, Telleria eta Supizpar eremuetan.

## Gazteen bertso eskolan izena emateko epea zabalik

Nafarroako Bertsozale Elkarteak Araitz-Beteluko Udalarekin elkarlanean, gazteen bertso-eskola abiarazteko matrikulazio epea zabaldu du. 10 eta 14 urte bitarteko gazteei egongo da zuzenduta. Eskola ordutik kanpo izanen dira saioak. Joko eta ariketen bidez, ikasleek bertsoak egiten ikasiko dute, lehenik paperean eta inprobisatuz ondoren. Horrez gain, euskal kulturaren ahozko tradizioa jaso, bertsoariaren historia ezagutu, hizkuntza gaitasunak landu eta gaitasun pertsonalak garatuko dituzte. Ikastaroa astean behineko ordubeteko saioa izanen da eta ordua eta eguna taldeak berak erabakiko du. Bertso-eskola sortzeko gutxienez bost ikaslek eman beharko dute izena otsailaren 20a baino lehen, 948 143747 telefonora deituta edo nafarroa@bertsozale.eus helbidera idatzita. Otsailetik ekainera bitarteko tailerraren matrikula 20 eurokoa izango da.

## Eguberrietako zozketako bi saskiak banatu dira

Juan Carlos Buldain eta Joxe Mari Zabaleta izan dira Eguberrietako Mailoperen aldeko zozketako saridunak. 030 eta 743 izan ziren zozketan ateratako zenbakiak. Joxe Mari Zabaletak eskualdeko artisauek eta dendarien produktuekin osatutako saski ederra jaso zuen eta Juan Carlos Buldain beteluarrak asteburu pasa bat. Zorionak bioi! Zozketari esker 1.519,35 euro garbi bildu ditu aldizkariak. Beraz eskerrik asko boletok erostera animatu zareten guztioi eta eskerrik asko batez ere saskia osatzeko zuen produktuak oparitu dizkiguzuen guztiei: Martintxonea Sagardotegia, Plazaola Partzuergo Turistikoa, Galburu Okindegia, Atabal Okindegia, Lasarte Harategia, Aliprox janari denda, Uitziko gazta, Balerdi Esnekiak, Gar-goik Esnekiak, Andoni Tolosa eta Gurutze Otamendi.



**urrutia**  
*enea*

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**

**OTXOTORENA**  
okindegia

**ARRIBE**

**ADIII! TLF BERRIA:**  
948 51 30 32

panaderia okindegia RIOJA

**GALBURU**

tel: 948 50 40 42 - 609 720 313  
Alde Zaharra, 50 - 31570 LEKUNBERRI (Nafarroa)

**IORTIA**

**Juanjo Gaité García**  
Odontologoa Kol. Zbkia. 317

Tel. 948 467 603  
Altsasu

Tel. 948 604 804  
Lekunberri

**HORTZ KLINIKA** [www.clinicaiortia.net](http://www.clinicaiortia.net)

**ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA**



## Ekainaren 20a iritsi bitartean hainbat ekintza antolatu ditu Gure Esku Dago taldeak

Araizko Gure Esku Dago-ko antolatzaileak dagoeneko ekimen berriak antolatzen dabilta. Joan den abenduaren 26ean, aurkeztu zuten 2015erako aurreikusitako plangintza, Euskal Herri mailan, Nafarroa mailan, zein Araitz-Betelun egingo diren ekintzen berri eman zuten. Bestalde, Urtarrilaren 16an, Intzako tabernan "Jostunak" dokumental berria izan zen ikusgai. Hilabete honetarako ere hainbat ekintza antolatu dituzte. Otsailaren 20an Gaintzako elkartearen, erabakitze eskubidearen aldeko mahai inguru bat izanen da eta gaiari buruzko iritzia emango duen gonbidaturen bat ere etorriko da. Bestalde, Gure Esku Dago dokumentala, "Jostunak", ikusteko aukera izanen da hurrengo data eta lekuetan:

- Otsailak 6: 19:00etan Lekunberriko udaletxeko batzar aretoan.
- Otsailak 20: 19:00etan Uitziko elkartearen.
- Otsailak 27: 18:30etan Astitzeko Aterpean.
- Martxoak 6: 19:00etan Aldatzeko ostatuan.

## Bitxigintza tailerra euskaraz

Euskara Batzordeak eta AEK-k Bitxigintza tailerra antolatu zuten joan den hilean. Urtean zehar beste zenbait jarduera egingo dituzte euskaraz, eta edonork parte hartu ahalko du.



## Korrika festa Lekunberri

Martxoaren 19tik 29ra Urepeletik Bilbora egingo den Korrika dela eta Korrika Kulturalaren baita hainbat ekitaldi eginen dira eskualdean. Otsailaren 22an, igandea, Lekunberriko udaletxeko Batzar aretoan, Korrika festa izanen da arratsaldeko 17:00etan. 19, edizioaren aurkezpena egiteaz gainera, arropa desfilea, lehiaketa eta sorpresaz beteta egongo da ekitaldia.

## #hankazgora! gazteentzako argazki lehiaketa

Euskaltzaleen Topaguneak eta Fundación Caja Navarrak lehiaketa berri bat aurkeztu dute Nafarroako 12 eta 18 urte arteko gazteentzako. "Hankazgora, Instagram-en bidezko argazki lehiaketa bat da, lehiaketa parte hartzaile eta dinamikoa euskaraz, gazteen sormena bultzatzeko helburua duena eta beraien arteko harremanak eta sormen kolektiboa sustatuko duena". Argazki bakoitzari euskarazko izenburu bat jarri behar zaio eta beste parte hartzaileek bidalitako argazki guztiak ikusi ahalko dituzte eta gustukoena bozkatu. Bozka gehien jasotzen dituen argazkiak jasoko du saria, epaimahai batek argazki hobereana izendatzen duen argazkiarekin batera. Lehiaketa urtarrilaren 15ean hasi eta martxoaren 15a bitartean gauzatuko da. Argazki guztiak data horien artean (biak barne) bidali beharko dira. Irabazleek 500 euroko bono saria jasoko du, berak aukeratutako merkatalgunean erabili ahal izateko.

Industrialgunea  
Lekunberri 9 - 31870  
LEKUNBERRI

**Cyclos**  
**IREBER**

**BIZIKLETA DENDA ETA TAILERRA**

Iñigo - 637 781 789  
cyclosireber@yahoo.es - www.facebook.com/cyclosireber

**BIDEGOXO JATETXEA**

Jaunartzeak  
Ezkontzak  
Ospakizunak  
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldetgia  
20400-TOLOSA 943 577 576  
info@bidegoxo.com

**MAITE**  
harategia

**BERTAKO HARAGIA**  
Txistorra, txorizoa,  
saltxitxak,  
sukaldaturako platerak.  
Etxera eramateko  
zerbiltua ere eskeintzen  
dizugu.  
Antigua Kalea N°7  
31890 BETELU  
Telf: 948 51 30 88  
maiteharategia@hotmail.com

## “Mankomunitate berean aritu izana lagungarria izango zaidala uste dut”

Ione Gorostazu



*Ainhoa Beraza euskara teknikariak urtebeteko eszedentzia hartu du eta Ione Gorostazu berastegierra arduratuko da ordezkapena egiteaz. Pixkanaka eskualdea eta bertan martxan dauden proiektuak ezagutzen dabil.*

### **Euskara teknikari lanetan noiztik zabitza?**

Orain dela bi urte inguru egin nuen lehenengo ordezkapena Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatean, Leitzan kasu hartan. Bost hilabete eman nituen han, gero ama izan nintzen eta joan den irailetik Arangurenen nabil.

### **Euskararekin lotutako ikasketak egin zenituen?**

Ez, historia ikasi nuen eta gero magistreritza. AEK-n lanean ibili nintzen, gero hezkuntza arautuan irakasle bezala ere, beti gustatu izan zait alor hau eta oso gustora nabil. Ordezkapenatarako poltsa bat izaten dugu eta Ainhoaren ordezkapena egiteko eskaini zidaten eta batez ere gertutasunagatik onartu nuen. Gainera, mankomunitate hau ezagutzen dut eta hori lagungarria da.

### **Idazlea ere bazara...**

Bai, hiru urte badira Elkar Argitaletxearekin poema liburu bat argitaratu nuela, “Des egiten”. Nire zaletasun nagusiak dira irakurri eta idaztea, baina azkenaldian lana dela eta bizimodu aldaketa dela nahi baino denbora gutxiago eskaintzen diet.

### **Eskualde hau ezagutzen al zenuen?**

Berastegikoa izanda ez da urruti gelditzen, gainera Etxarrin familia daukat eta tarteka etortzen naiz, baina egia da hemengo herri txiki asko ez ditudala ezagutzen. Pentsatzen dut poliki-poliki joango naizela ezagutzen.

### **Ainhoa bera ezaguna duzu...**

Bai, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatean hiru teknikari daude,

Leitzaldean bat, Ultzamaldean bestea eta hemen hirugarrena. Beraz, Leitzaldean ibili nintzenek elkar ezagutzen gara. Horrek ere konfiantza pixka bat ematen dit, beste bi teknikariak ezagutzen baititut. Gero pixkanaka moldatu beharko naiz mankomunitate bakoitzak bere ezaugarriak eta bere plangintzak dituelako.

### **La udal ezberdinetan arituko zara lanen aldi berean..**

Bai, horrek hasieran konplikatuagoa eman lezake, baina beste alde batetik urte asko elkarlanean daramatzaten udalak izanik esperientzia ere badute alderantziz balitz zailagoa izango litzateke, lau udal banaka egitea.

### **Zein izaten da euskara teknikarien lana?**

Udalek jarrita dauzkaten hizkuntza politikaren araberako normalizazio plangintzak egin, martxan jarri eta ebaluatzea, euskara zerbitzu eta euskalgintzaren (euskaltegi, euskara batzorde etab.) inguruan sortzen diren lanen koordinazioa eramatea, euskararen inguruko gaietan udalak eta herritarrak laguntzea, aholkularitza, dinamizazioa, itzulpena, zuzenketak... Eta orokorrean, herrietako bizitzan eta udalen barruan euskararen erabilera sustatzea eta horren guztiaren segimendua egitea.

### **Dagoeneko euskara batzordeekin biltzen hasi zara...**

Bai, Araizko euskara batzordea dagoeneko ezagutu dut. Ea pixkanaka herritarrak ezagutzen joaten naizen. Ni saiatuko naiz Ainhoak utzitako lekua ahalik eta hobekien betetzen.





&gt;&gt; Andoni Tolosa

## Pinuak gorritzen eta gaixotzen ari dira

*Gure bailarako pinudiak kolore berde ilunekoak ziren, eta ziren diogu, ez baitira hain berdeak, gorritzen hasiak dira, eta ez udazkena pasa eta neguan gaudelako, gaixotasun batek jo dituelako. Edo hobeto esanda, onddo batek erasotu dituelako. Horrela bada, pinudi asko, ez guztiak baina bai gehienak, triste ikus ditzakegu, kolore pattalarekin, ahul, hitz batean, gaixo.*

Pasa den mendearen erdi aldera gure zonaldean, batez ere Araitz bailaran, intsisin pinu asko sartu zen. Amerika aldetik zetorren zuhaitz bat zen, eta bere ezaugarri nagusia azkar hazten zela zen. Hau da, berrogei urteren buruan, pixka bat zainduz gero, pinudi eder bat izan genezakeen. Garai hartan egurra preziatua zen, asko erabiltzen zen, beraz ikuspuntu ekonomikotik inbertsio on bat zen. Orduan hemen ezagutzen ziren zuhaitzekin konparatuz hazkundera, beraz etekina, asko azkartzen zen, izan ere haritza, pegoa, lizarra, edo antzeko zuhaitzek askoz urte gehiago behar dituzte heldutasunera iristeko. Antzeko arrazoiengatik, eta aldi beretsuan sartu ziren gure lurretan haritz amerikarra, izeia edota alertzea.

Honi gehitu behar diogu, pinu mota hau oso ongi egokitu zela gure lur eta klimara, oso urte gutxitan hazkunde handia zutelatik ikusi zen eta horrela, bailarako lur eta soro asko pinudi bihurtu ziren. Aldi beretsuan eman zen abeltzaintzaren beharakada ere. Baina tira, honek izango ditu arrazoi gehiago ere noski.

Guzti honek eraman gaitu oso eremu zabalak pinuz bakarrik osatutako basoak izatera. Gaixotasunen aurrean babesik gabe aurkitzen dira, pinu baten ondoan beste pinu bat dago, eta honen ondoan beste bat, hau da, bat gaixotzetik izurrite batetara pasatzeko lehen baldintza jarria dugu.

Honengatik bakarrik ez dira gaixotzen ari noski.

Bestalde, gaixotasunaren eragile bat ere behar dugu, kasu honetan onddo bat da, *lecanosticta acicola*. Onddo hau pinuaren hostoetan kokatzen da eta hostotik bertatik lortzen du jana, horrela hostoa kolore berdea galtzen doan heinean

gorritzen hasiko da. Eta hostoak ahultzen badira zuhaitza bera ere ahulduko da.

Eta zergatik orain? Pinuei gaixotasunak pilatzen ari zaizkie eta oro har gero eta osasun ahulagoa dutela esan genezake. Orduan, pinuak zenbat eta ahulagoak egon onddoentzako are errazagoa izango da erasotzea. Eta onddoa indartsu egoteko eguraldi baldintza egokiak ere behar ditu, eta aurten baldintza hauek ere eman dira bada. Hasteko negua nahiko epela izan dugu, izotzik gabe, eta gero, urtean zehar hezetan asko izan dugu, batez ere udaberrian eta udaren lehen partean, beraz onddoa gustora egon da eta hor hartu du indarra.

Teknikoen arabera ez da gaixotasun larria, lehen urtean ez du arbola hilko. Ahuldu egingo du, hazkundera gelditu, beraz ekonomikoki eragina du, nahiz eta azken urte hauetan pinu-egurra, gaixotasunik gabe ere, asko merkatu da eta ez ditu ematen garai bateko etekinak. Beraz pinua ahuldu egingo du, eta horrela, beste gaixotasun batzuen aurrean ere babes gutxiagorekin aurkituko da. Aurtengo negua gogorra baldin bada, onddoa ez da ongi ibiliko eta pinuak hosto berriak aterako ditu. Horrela gaixotasunari aurre egingo dio. Ez badu gaitzen urte gutxiren buruan pinuak hiltzen joango dira.

- 25 -



**SASTRAKA**  
auto 4x4

**Ibilgailuen Mekanika Orokorra**  
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

**Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere**  
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9  
31870 Lekunberri

948.60.48.06 Iñigo  
www.sastraka4x4.com

M. Angeles  
Urrizalki

iragarkiak,  
berriak,  
eskelak...

Diario Vasco eta  
Diario de Navarrako  
Korrespontsala

948513056  
699179437



**aitzberri**

edertasun  
zentroa

Lako beikoa  
Betelu 31890

948 513 083  
696 732 290

aitzberri@hotmail.com

## 180 korrikalarik parte hartu du 10. Araitz-Beteluko Krosean



### Benjaminak

#### Mutilak

|                      |            |
|----------------------|------------|
| 1. Oier Villan       | (Donostia) |
| 2. Julen Sotil       | (Betelu)   |
| 3. Ioritz Dorronsoro | (Leitza)   |

#### Neskak

|                    |           |
|--------------------|-----------|
| 1. Maier Olano     | (Tolosa)  |
| 2. Ilargi Etxarri  | (Arruitz) |
| 3. Sofia Boradauka | (Atallu)  |

### Alebinak

#### Mutilak

|                   |          |
|-------------------|----------|
| 1. Igor Garmendia | (Betelu) |
| 2. Unax Olano     | (Tolosa) |
| 3. Oihan Gaillard | (Atallu) |

#### Neskak

|                    |           |
|--------------------|-----------|
| 1. Ainhoa Garcia   | (Irun)    |
| 2. Aileen Aranburu | (Betelu)  |
| 3. Eider Couso     | (Burlata) |

### Infantilak

#### Mutilak

|                  |           |
|------------------|-----------|
| 1. Abule Esteban | (Betelu)  |
| 2. Iker Mintegi  | (Altsasu) |

#### Neskak

|                    |            |
|--------------------|------------|
| 1. Idoia Lizarraga | (Aldatz)   |
| 2. Lide Villan     | (Donostia) |

10 urte bete ditu aurten X. Araitz-Beteluko Herriarteko Krosak. Joan den urtarrilaren 11ean egin zen aurtengo proba. Goizeko 10:30etan haurren krosa izan zen, 90 neska-mutikok parte hartu zuten kategoria ezberdinetan. Proba nagusia Beteluko elizako erlojuak 12:00 jo zituenean hasi zen. 180 korrikalari irten ziren plazatik, tartean 13 kadete. Gizonezkoetan Javier Nagorek irabazi zuen aurtengo proba 25 minutu eta 6 segundotan. Raul Amatriain helmugaratu zen bigarren (00:25:27) eta Oscar Primo hirugarren (00:25:49). Emakumezkoetan Izaro Rubio ordiziarra izan zen azkarrena 7,7 kilometroak amaitzen 29 minutu eta 57 segundorekin. Atzetik, Berriozarko Milagros Enriquez (00:32:13) bigarren eta Lekunberriko Olatz Gonzalez (00:33:01) hirugarren. Irten eta berehala



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara



# BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
bacalaoselkano@jet.es  
www.bacalaoselkano.com.





Cristina Loeda korrikalaria erori egin zen eta lasterketa utzi zuen.

Eskualdeko sailkapenari dagokionean, Xabier Satrustegi izan zen aurtengo txapeldua, 26 minutu eta 10 segundotan egin zuen proba. Atze tik Ander Arraztiok eta Isaac Alvarezek amaitu zuten. Aurtengoan sari bereziak jaso zituzten Imanol Estangak, Beteluko 5. sailkatua, eta Unanuako Jose Mari Mercero, 76 urterekin korrikalari nagusia izateagatik.

Hemen dituzue Gaztetxoaren probaren sailkapena eta proba nagusiko eskualdeko sailkapena.



### Aurtengoan Juan Pedro Aldai gogoan

“Helduen Kroseko proba nagusia hasi aurretik, Juan Pedro Aldai Truebari gorazarre egin zitzaion eta korrikalari eta publikoaren txalo zaparrada dedikatu zitzaion. Juan Pedro joan den abenduan joan zitzaigun. Betelun eta Araitzen dagoen korrikarako zaletasunarekin zerikusia handia izan du gizon honek. 80ko hamarkadan, Beteluko beste auzokoekin batera, lasterkari talde bat osatu zuten (Beteluko Kirol Elkarte) eta herriz herri antolatzen ziren herri krosetan makina bat trofeo bildu zituzten. Mila esker Beteluko Kirol Elkartean parte hartu genuen korrikalari guztion aldetik”.

| DENBORA  | IZENA        | ABIZENAK             | HERRIA     |
|----------|--------------|----------------------|------------|
| 00:26:10 | XABIER       | SATRUSTEGI GARZIA    | BETELU     |
| 00:26:24 | ANDER        | ARRAZTIO SARALEGI    | BETELU     |
| 00:29:18 | ISAAC        | ALVAREZ CARPINTERO   | LEKUNBERRI |
| 00:29:28 | IÑAKI        | MALKORRA ARAOLAZA    | LARRAUN    |
| 00:29:38 | XABIER       | AZPIROTZ SATRUSTEGI  | LARRAUN    |
| 00:30:01 | IÑAKI        | ELIZALDE ZUBLLIAGA   | BETELU     |
| 00:30:16 | ASIER        | MESANZA MORAZA       | EGÜÉS      |
| 00:30:33 | IÑIGO        | GARMENDIA GOIK.      | BETELU     |
| 00:30:43 | JUAN MARI    | IRASTORZA GARAÑO     | LEKUNBERRI |
| 00:31:05 | JULIO        | SOTO EZKURDIA        | LARRAUN    |
| 00:31:11 | IOSU         | OREJA ARRATIBEL      | ERRAZKIN   |
| 00:31:47 | IMANOL       | ESTANGA ARRIZUBIETA  | BETELU     |
| 00:32:17 | IMANOL       | JAKA NAVARRO         | LARRAUN    |
| 00:32:19 | KIKO         | ESKAMENDI IRIARTE    | BETELU     |
| 00:33:01 | OLATZ        | GONZALEZ GLARIA      | LEKUNBERRI |
| 00:33:15 | IÑIGO        | IRIBARREN AGIRRE     | LEKUNBERRI |
| 00:33:34 | AITOR        | ARTEAGA CAMARA       | BETELU     |
| 00:34:49 | MADDI        | SOTIL BULDAIN        | BETELU     |
| 00:34:46 | JULEN        | CAÑAMARES MUGERZA    | BERRIOZAR  |
| 00:35:05 | LUIS MARI    | LARRETA AMUNDARAIN   | LARRAUN    |
| 00:36:44 | MIGUEL RAMON | OLANO ZABALETA       | BETELU     |
| 00:37:02 | IBAI         | SOROA MUGERTZA       | ARAITZ     |
| 00:37:03 | ANGEL        | SOROA ONSALO         | LEKUNBERRI |
| 00:37:12 | IRATI        | MORENO BLAS          | ALDATZ     |
| 00:37:15 | ARANTZA      | MAULEÓN PENA         | LARRAUN    |
| 00:37:16 | MARIA        | BASTERRETXE PEÑA     | ATALLU     |
| 00:37:22 | IOSU         | ESTANGA BERAZA       | BETELU     |
| 00:38:30 | JUAN IGNACIO | BULDAIN ARGUIÑARENA  | BETELU     |
| 00:39:41 | JUAN MIGUEL  | ZUBILLAGA GOIKOETXEA | BETELU     |
| 00:39:47 | KRISTINA     | ALTUNA OTXOTORENA    | BETELU     |
| 00:41:52 | MIKEL        | MALKORRA             | ARRIBE     |
| 00:41:52 | IÑIGO        | OREJA SANZ           | ERRAZKIN   |
| 00:41:52 | SANTI        | GARMENDIA GOIK.      | BETELU     |

**AMAIRU BAR**  
 GTXKO PIZZAK.  
 KOPA BERGIZAK  
 948504352

**Kantina Rock**  
 948 60 48 21  
**KANTINA**  
 bokatak, platerak eta...musika .....

**INFORMATIKA BETELU**  
 ▶ ordenagailuen salmenta eta konpontzea  
 ▶ sareen instalazioa eta konfigurazioa  
**634 551 743**  
 informatika.betelu@gmail.com

**CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.**  
**HIRUROK S. VETERINARIOS**  
 Telefono zenbakia eta faxa:  
 948 50 43 31  
**Lekunberri**





> Plazaola Partzuergoa


# 20 URTE BIDEAN



PR-NA 88 3,55 ordu / 14,80 km

## BASABURU-KO ATEAK

Ibilbideak Larraun ibarreko ipar ekialdean barna egiten du aurrera, mugakide diren Basaburua eta Ultzama ibarrekin lotu nahirik. Bideak eramanen gaitu Lekunberriko sakonuneko zelaitik Arruitz-Aldazko hurrengo goi-lautadara, Basaburua ibarreko mugatik hurbil. Ibar horretan barna jarraituko dugu Udabetik, Itxaso eta Aldatz arteko mendi oihantsuetan sartuko gara eta berriz ere Larraun ibarrera itzuliko.



**0,00 ordu / 0,000 km [1]** Plazaolaren geltoki zaharra. Etxarriko errepidea hartu, gainalderaino, eskuinaldeko pistatik segi, eta aurrera eginen dugu muinoan zehar, haritz artean. Santa Kruzeko basiliza eta ur biltegiaren ondotik igaro eta bidea hartuko dugu Arruitza iritsi arte.

**0,45 ordu / 3,100 km [2]** Arruitz (620 m). Elizara doan alda-pa igo gabe, herriko beheko aldean segi ezkerretara dagoen pistatik. Herritik atera eta handik 300 metrotara, eskuinean dagoen pistatik jarraitu.

**0,50 ordu / 3,740 km** Pistaren bukaera. Lurrezko bidean barna, oihan hostotsuan sartuko gara.

**1,20 ordu / 5,210 km [A]** Arruizko gesaleak -gatzagak- eta aintzirak. Aurrera jarraituko dugu, eta ezkerretara utziko dugu zubitxoan duen bidea.

**1,40 ordu / 6,340 km** Bihurgune batean, eskuinetara jarraituko dugu, goraka, eta aurrerago ezkerretara dagoen pista hartuko dugu. Lur biltzeko pista batetik segituko dugu Udaberaino.

**2,25 ordu / 8,560 km [3]** Udabe. Errepidera iritsi gabe, herrian zehar igaroko gara, ezkerretik, eta pista batetik etxalde baten ondotik igaroko gara. Behean Udabeko Benta dago. Beramenditik datorren pistarekin topo egingo dugu. Hemendik

aurrera Probintzietako Errege Abelbidekomugarriak aurkituko ditugu. Ezkerretik jarraituko dugu, betoizko tarte batean, eta 250 metro egindakoan, eskuinetarantz egin behar dugu eta zelaian ibiltzen jarraitu. Azken bidegurutze horretatik 700 metrotara, eskuinetara dagoen bidexka ikusiko dugu; soro artean, Etxeberria bordaraino eramanen gaitu.

**2,50 ordu / 10,850 km** Etxeberria borda. 400 metro igo, Korrotegainaraino. Behera egiten duen pistatik jarraituko dugu, eta 300 metrotara eskuinetara dagoen bide edo bidexka hartuko dugu.

**3,07 ordu / 11,700 km [B]** Erreka. Basaburua eta Larraun arteko muga. Erreka zeharkatu, eta 100 metrotara eskuinetara biratuko dugu bide batetik, Aldazko pista aurkitu arte.

**3,18 ordu / 12,450 km** Aldazko pista topatuko dugu. Eskuinetara eginen dugu, hura hartuz.

**3,48 ordu / 14,350 km [4]** Aldatz (645 m). Herria gurutzatuko dugu punta batetik bestera, eta soro arteko bide batetik Etxariraino iritsiko gara. Han, GR 12 mendiko ibilbideak Lekunberiraino lagunduko digu. "Izoa Mariana" etxetik, baserrien pistatik aurrera eginen dugu Plazaolako bidearekin bat egin arte.

**4,50 ordu / 18,850 km** Lekunberri (571 m). Geltokia.



# HAIZEAK ERAMANA

Leonetik (Espainia) iritsitako kontuak  
> Ion Ander Unanua

## “Asteburuetan, Leongo alde zaharrea, giro ederra izaten da”

*Ion Ander Unanua lekunberriarrak hiru urte daramatza Leonen ikasten eta orain entrenatzaile lanetan ere badabil.*

### Noiztik zaude Leonen eta zertan zabilta?

Duela 3 urte heldu nintzen Leonera. INEFeko gradua egiten ari naiz bertan, kirol ikasketak. Gainera, hemen ikasten nagoela aprobetxatuz, futbol talde batean entrenatzaile bezala nabil.

### Zenbat denborarako joan zara?

INEFeko ikasketak 4 urte irauten dute, 3 urte daramatzat hemen, beraz hurrengo urtean bukatuko dudala uste dut, dena ongi badoa behintzat. Hala ere, nahiz eta Leonen ikasketak bukatu ez dakit oraindik etxera bueltatuko naizen edo ez, baliteke master bat egitera beste leku batera joatea. Ikusiko dugu.

### Zergatik aukeratu zenuen herri edo hiri hori? edo bertara joateko aukera nolatan sortu zitzaizun?

16 urte nituenetik oso argi nuen INEF ikasi nahi nuela, kirolaren eta batez ere futbolararen inguruko guztia oso gustuko nuen. Selektibitatea bukatuta Gasteizera joateko asmoa nuen, baina bertan sartzeko eskatzen zuten nota inoiz baino gehiago igo zen eta hori baztertuta, Leonera edo Toledora joateko aukera izan nuen. Azkenean Leonera joateko erabakia hartu nuen hiri lasaiagoa iruditzen zitzaidalako eta batez ere hurbiltasunagatik. Ongi aukeratu nuela uste dut.

### Zein da zure egunerokoa bertan?

Oso lanpetuta nabil. Esan bezala, ikasketez gain futbol talde batean nabil entrenatzaile fisikoko lanetan. Ingelesa ikasten ere banabil akademia batean eta ahal dudan guztietan fitnessaren inguruko kurtsoak egiten ditut.

### Zer da gehien harritu zaituena?

Gehien harritu ninduen hiri honetako giroa da. Larunbat eta



igandetan alde zaharra bete egiten da, jendea zerbait hartzera ateratzen da bere lagun edo familiarekin eta askotan edozein motako ikuskizunak jartzen dituzte kalean bertan eta oso giro ona sortzen da.

### Euskaldunik aurkitu al duzu bertan?

Askok, uste onua baino gehiago, azken finean kirol ikasketak nahiz eta eskaera handia izan, ez da leku askotan aurki dezakezun gradua, hori dela eta euskaldun gehienak Gasteizera edo Leonera joaten dira hurbiltasunagatik.

### Bertara joateko asmoa duen bati zer gomendatuko zenioke?

Arropa lodia ekartzeko gomendatuko nioke, hotz ikaragarria egiten du neguan. Leon bisitatu behar duen norbaiti alde zaharra eta batez ere Katedral famatua bisitatzeko gomendatuko nioke eta bertako pintxoak, Leoneko produktu tipikoak ezin ditzake galdu. Gainera Leon inguruko herriak ere politak dira.

### Etxekoei, lagunei edo hemen dagoen inori mezuren bat bidali nahi badiozu, aprobetxatu!

Elkarrizketa aprobetxatu eta familia eta lagunei besarkada handi bat bidaliko diet, laster izango naute berriz han!

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
urzubi@hotmail.com



**NEKAZARI, S.L.**

Kubota  
STIHL

ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
Tel.: 948504128  
Fax: 948504377  
nekazarisl@hotmail.com



## “Denak zentzu bat izan behar du, armonia bat”

Joan den abenduaren 12an ireki zuen Urko Carrera etxalekuarrak bere izena daraman negozio berria, Urko Zeraleku Hogar. Etxebizitzaren barrualdea integralki janzteko diseinu eta dekorazio denda da.

### Zeraleku sortua zen aurretik ezta?

Bai, Zeraleku Bearzunen barruko zati komertziala da, eta Urko Zeraleku Hogar nire aldetik martxan jarritako proiektua da. Aspaldi buruan nuen ideia bat zen. Zeralekun bertan egiten dudan lanean konturatu nintzen halako zerbitzu baten bazela inguruan eta inertziak bultzatzen zaitu.

### Zer eskaintzen duzue?

Zeralekun gehien bat zeramikak, laminatuak eta komuneko osagai guztiak saltzen ditugu. Kasu honetan aldiz, soluzio integrala emateko denda bat da. Horretarako losune Mariezkurrena Igoarra eta Ainhoa Duran atarrabiarrak dabilta hemen lanean. Biak dekoratzaileak dira, aurretik Iruña aldea ibilikoak

dira, esperientziadunak. Esperientziak erakutsi digu, erosi dezakezula zeramika bat, altzari bat edo sofa bat maila batekoa edo bestekoa baina diseinuari duen garrantzia eman gabe. Orain arte ahal genuen neurrian jendea animatu egiten genuen testurekin edo iluminazioarekin jokatzera. Altzari on batek askotan ez du egiten osotasunean polita izatea. Denak zentzu bat izan behar du. Gu orain arte beti saiatu izan gara halako aholkuak ematen, baina oso maila txikian. Orain berriz, gure dekoratzaileei esker zerbitzu hori eskaini nahi dugu. Askotan etxebizitza bera erosten edo eraikitzen inbertsio handia egiten dugu eta barrukoaz ahaztu egiten gara.

### Bezeroa etortzen denean zein izaten da jarraitzen duzuen prozesua?

Lehenik bezeroari galdeketa bat egiten zaio, etxeko zein zati dekoratu nahi duen, zer gustatzen zaion, dituen ohiturak... Dekorazioa bera ere estetikoak



izateaz gainera funtzionala izatea ere bilatzen dugu. Alferrik da izugarritzko sukaldia jartzea oso gutxi sukaldatzen duen horietakoa bazara. Edo etxean lan egin behar baduzu etxeko txoko horrek horretara gonbidatu zaitzala. Behin balorazioa eta aurrekontua eginda, losunek bozetoak egiten ditu, planoak ere prestatzen dira 3D formatuan eta produktuak aukeratzen dira katalogo bidez. Guk diseinu eta orientazio zerbitzu hori doan ematen dugu eta gero norberak ikusten du produktu guztiak erosi, oinarrizkoena erosi edo interesatzen zaizuna. 25 hornitzaile ingururekin egiten dugu lan.

### Prezio guztietako produktuak eskaintzen dituzue?

Guk denda maila ertain batean jarri dugu. Hemengo jendeari produktu onak prezio egokian ordaintzea gustatzen zaiola uste dugu. Horren barruan, oso aurrekontu ezberdinetarako aukera dago. Horregatik garrantzitsua da guregan konfiantza izatea duzun aurrekontu hori zehaztu eta horren arabera proiektua egokitzeke. Ez dituzu maila bereko produktuak jarriko alokatzeke pisu batean edo zure etxebizitzan... Edo bezero batek esan diezazuke diruz mugatuta dabilela eta horretara egokitu behar duela. Konfiantza hori eskertu egiten da. Askotan 2.000 euro dituzu saloia janzteko eta batzuk izugarritzko sofa bat erosten dute gainontzekoa erosteko tarterik utzi gabe, guk kontrakoa aholkatzen diogu, erosi sofa merkeago bat eta jarri detaile batzuk, konjuntua polita izan dadila.











# Ihotekak

## LEKUNBERRIKO I-HAUTERIAK

### Otsailak 6

Arratsaldez herrian zehar erronda, herriko plazan bukatuko da.

### Otsailak 7

11:00 - Hamaiketakoa kattagorri elkartean.  
12:00 - Umeentzako aperitiboa herriko plazan Musikaz alaitua. Derrigorrez mozorrotua  
13:00 - Inauterietako lehiaketa, txarangarekin  
Sari bakarra: Irabazleentzako kuadrila afaria.  
Alde zaharretik frontoira desfilea.  
Parte hartu gure kaleak alaitzen!  
Txarangarekin erronda urtero bezala.  
19:00 - Irurtzungo zanpantzar eta pertsonaiak, Herriko Plazan  
20:30 - Aittezarkoren erretzea, herriko plazan.

## ALDAZKO IHOTEAK

### Otsailak 14

11:00 - Gosaria herriko Martixa Elkartean.  
12:00 - Herrian zehar ihotetako gurdiaekin bueltatxo bat.  
14:00 - Bazkaria elkartean.  
16:00 - Poteoa sagardotegian. Hualdeko bordan eta ostatuan.  
21:30 - Afaria ostatuan eta ondoren musika.  
Denak gonbidatuta zaudete!

## BARAIBARKO IHOTEAK

### Otsailak 14

-10:00 - Herriko plazan elkartzea (Denok mozorrotuta).  
-10:15 - Gosaria herriko ostatuan (Herriak gonbidatuta).  
-11:30 - kalejira herrian zehar mendiberriren soinuarekin.  
-15:00 - bazkaria herriko osatutan.  
Ondoren festa jarraituko du mendiberrirekin.

## ARRUIZKO IHOTEAK

### Otsailak 21

Goizean puskabiltza herrian barna musikarekin, gero bildutakoarekin bazkaria izango da.  
Iluntzean attezarren erretzea eta amaitzeko afaria.

## GAINTZAKO IHOTEAK

### Otsailak 28

11:00 - Puskabiltza herrian trikitilariekin, mozorrotu eta anima zaitetz!  
Arratsaldean musika eta herri poteoa Sonbelu elkartean.  
21:30 - Afaria elkartean.  
00:30 - Goizalderarte mozorro dantzaldia dj Txokorekin.

